

musika
betagarri
ruper ordorika

QEU

2,40 €

2007ko urtarrila

169

antzerkia
kunka! ekoiztetxea
gaia
otsoa euskal herrian

gasteiz
alde zaharraren zaharberritzea
historia
iruña-veleia

konponbiderako eredu



CEGASA

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK




Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.




CEGASA INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - 01013 GASTEIZ
Bezeroarentzako arreta telef.: 902 32 22 32 www.cegasa.com



GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
| Geu aldizkariko taldeak egina, bideratua eta kudeatua |
erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa:
eta faxa: 945 22 21 53 | e-mail: geugaste@grn.es |
www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de
zarate | aldizkariko batzordea: david alvez, edurne begiristain,
josune veleaz de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas
| kazetaria: josune veleaz de mendizabal, edurne begiristain,
maite lekue, saioa fdz de arangiz, ainhua arriaga eta naraa
cuesta | azaleko argazkia: argazki press | argazkiak: edorta
sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de
zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orrazketa-osaketak:
estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta
azti | maketa: davez | umorea: iñigo sarasola | kolaboratzaileak
ale honetan: mundina, kike fdz. de pinedo, txabi arnal eta
erlantz urtasun | publizitatea: geu aldizkaria | sustapen-
harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate
laguntzailea: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop.
E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 |
Franeko Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatua
egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen
bertan adieraztikoaren erantzukizunik.

zeregin	4
urtarrileko agenda	
iritzia	7
euskaltzaleen paradigma berria	
kaletik / zutabea	8
ura / lourdes oñederra	
geupertsonaia	9
iñaki ortiz de villalba, betagarri taldeko abeslaria	
orribatean	12
dinux: euskara software librea	
geupertsonaiak	13
kunka! antzerki & tb ekoizpenak gorka aginagalde, josean de miguel, eloi beato	
euskaltasunean. gasteiz	16
iraide akordarrementeria	
geugaia	17
ahotsak ekimena	
geugaia	21
otsoa euskal herrian	
proposamenak	
haur&gazte literatura	24
cd-a&liburua&zinea / txabi arnal	
artetxokoa	25
rupey orдорika	
artetxokoa	28
zirika	
batbitan	30
gasteizko alde zaharraren zaharberritzea PERI, ANTI-PERI, GASTEIZ TXIKI, AZAO	
batbitan	32
fontaneda.net euskararen inguruko txokoa	
historia&euskara	34
iruña-veleia	
bidaia / errezeta	36
bizibidaia.net mondejuak	
umorea	37
iñigo sarasola	
arababixotzian	
historiazutabea	38
mundina / erlantz urtasun	



GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA

urtarrilak 21, igandea

>PEÑA BLANCA (1269m) eta TREKUARA (1265m) txangoa
irteera: Lovaina plazatik ordua: 9:00etan
arduraduna: Joseba (945200973)

KULTUR ERROTA

urtarrilak 30, asteartea

>NäUT talde gasteiztarra

hasieran kasualitateak sortu zuen taldea, gero kuriositateak, eta esperimendu grinak behar bihurtu zuen proiektu hau. proiektu berritzaile honek rocka du oinarri eta beste musika estiloak eta taldekide bakoitzak jasotako eraginak batzen ditu. zeharo apustu instrumentala.

taldekideak: josu andueza, baxujolea; eneko de arza, bateria; david madinabeitia, gitarra
paral tabernan, 20:30ean



IRAKURLE KLUBA

urtarrilak 25, osteguna

> irene nemirovsky, DANTZALDIA, txalaparta 2006

lekua: hikaateneoa (pintore kalea, 13) ordua: 20:00etan

dinamizatzailea: iban zaldia

>>otsailean jorratuko den liburua: pruden gartzia, LAZARRAGA, ERNAZIMENTUA EUSKARAZ, pamiela 2005

KONTZERTUA

RUPER ORDORIKA

urtarrilak 26, 21:30, ARTIUMen

(ART&SOUND) 'MEMORIAREN

MAPAN' disko berriaren aurkezpena

www.ruperordorika.com



GAUEKOAK

>adi neguko euskarazko programazioari

www.gauekoak.com

EUSKHARAN

elkartearen ekintzak

amaia zentroa, isunzatarren kalea, 10
945288275

GORA TABERNA

(gasteizko alde zaharra)
KONTZERTUAK

PARRAL TABERNA

(gasteizko alde zaharra)
KONTZERTUAK, ANTZERKIA,
ERREZITALDIAK, DIAPORAMAK...

BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

ARTIUM: igandero, 11:30ean. 945209010.

www.artium.org

MONTEHERMOSO: alde z aurretik hitzartu (945161830)

IRUÑA-VELEIA: 945403044 / 652720947.

www.veleia.com

ANDRA MARI KATEDRALA: 945255135.

www.catedralvitoria.com

TAILERRAK

KONTSUMO GELAK / TAILER BERRIAK 2007

>elikagai funtzionalak; internet: kontratazioa eta erabilerak; gainzorpetzea; piercingak eta tatuaiak. lehenik eta behin segurtasuna; botikak: erostea eta kontsumitzea
antolatzaile: kontsumo gelak (adriano VI.a, 20-1.-gasteiz / 945016600 / a-kontsumo.gelak@ej-gv.es

BERDINTASUNERAKO JARDUERAK

>JENDAURREAN HITZ EGITEA

pilar gizarte etxean, urtarrilak 20-martxoak 24 (larunbatetan), 10:00-12:00

>O-3 URTE BITARTEKO HAURRAK ZAINTEZA

aldabe gizarte etxean, urtarrilak 22-otsailak 26 (astelehen&asteazkenak), 19:30-21:00
izena-ematea: epea jarduera bakoitza hasi baino astebete lehenago bukatuko da / edozein gizarte etxetan edo internetez
www.vitoria-gasteiz.org



KORRIKA 2007

NOLA HARTU PARTE

- "korrika laguntzaile" euskarria erosiz
- zure herrian edo auzoan hau guztia egingarri izan dadin, eratu den korrika batzordean parte hartuz
- korrika kulturalak antolatuko dituen ekitaldietan agertuz
- korrikaren (www.korrika.org) web-gunea bisitatuz
- munduko itzulua egingo duen korrika birtualean parte hartuz (www.korrika.org)
- martxoaren 22an karrantzara eta apirilaren 1ean iruñera joanez eta korrika 15aren hasieran eta amaieran parte hartuz
- korrika 15aren materiala edo oroigarriak erosiz, korrika aurretik, bitartean edo ostean.
- benetako korrikalarien ezaugarri garrantzitsua den petoa edo bizkarrekoa erosiz, aurretiaz edozein euskaltegian edo korrika egunean bertan
- herriz herri egingo den korrikaren aldeko diru bilketan lagunduz
- enpresa edo saltegiek, korrikalaria, korrika-lagun txartela edo korrika iragartzeko aterako diren bestelako euskarriaz babestuz
- kilometroak subentzionatuz, eta ordaintzen duenak zein hautatutako beste batek subentzionatutako kilometroan korrika eginez. parte hartzeko modu hau erabili nahi dutenek korrika bulegoetara jo dezakete
- korrikaren izenean euskadiko kutxan zabaldu den 3035.0072.0.2.072.0.00571.0 kontu korrantean nahi duzun diru kopurua sartuz
- eta, jakina, korrika normaltasunez egin ahal izateko laguntza ekonomikoa beharrezkoa dugun arren, bizkarrekoa jantzita korrika eginez ere bai



KORRIKA DENDA GASTEIZEN MATERIALA & KORRIKA-LAGUNTZAILE

urtarrilak 4 eta 5 (17:00-20:00) gorbeia merkatal zentroan

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

AMURRIO ANTZOKIA**>ANTZERKIA**

TXANOGORRITU. urtarrilak 2, 18:00etan
glu-glu producciones
ROBIN ETA HOOD. urtarrilak 12, 15:00etan
gorakada

>BERTSO SAIOA

urtarrilak 6, 20:30ean

BEK-eko finalistekin: andoni
egaña, maialen lujanbio, igor elortza, unai
iturriaga, amets arzallus, aitor mendiluze etab.

>DANTZA

AITZINA PIKA. urtarrilak 27, 20:00etan
www.amurrio.org

**HAURRENTZAKO JARDUERAK**

EN LA LONA. "BARRE LABORATEGIA"

urtarrilak 20, 18:30ean

TONA LA SAL BIRUSAK ERASOAN

urtarrilak 27, 18:30ean

montehermoso kulturunean.

larunbatetan familia osoa programa.
sarrerak: euro 1, aurreko larunbatetik salgai

ANTZERKIA: TXITXARRA ETA INURRIA

urtarrilak 14

aguraingo harresi aretoan, 17:30ean. 945301931

HITZALDIA

'celestino uriarte, klandestinitatea eta
erresistentzia komunista' liburuaren
aurkezpena

juan ramon garai egilearen eskutik
urtarrilak 17, 19:30ean,
hikaateneoan

liburuaz

liburu hau ez da ohiko historia saiakera.
biografiaren kutsu nabarmena izanagatik
ere, ezin esan biografia bat denik, ez
baita biografia soil. celestino uriarte
arrasatearraren bizitza hari gidarizat
hartuta, zeru indarrez hartu nahi izan
zuen, eta gerraren ondorioz
erresistentziarik gorrienera -bi zentzuetan-
jaurtia izan zen belaunaldi oso baten
kronika da eskuarteaz duzuna.

hizkuntza: euskara / 295 orrialde /

www.txalaparta.com

berria / 06-azaroak 10

belaunaldi oso bat omendu du juan
ramon garaik, celestino uriarteren
biografiarekin

36ko gerra ondoko erresistentzia
komunista klandestinoaren berri ematen
du liburuak

VIII jon aizpuru bertso & euskal kantu lehiaketak www.j-obrero.es

-antolatzailea: jesus obrero ikastetxea

-norentzat: arabako lhko & dbhko

ikasleentzat

-zer egin behar?

>bertso lehiaketarako:

idatzizko bertsoak. bi zortziko txiki

gutxiengo. gaia: ikaslearen

gorabeherak (lanaren kopia gorde)

>euskal kantu lehiaketarako:

euskal herriko kanta euskaraz edo kanta orijinala euskaraz.

zinta, cd edo dvd batean

-sariak - bi kategoria: lh & dbh.

hiru sari bakoitzeko: 1. saria (100 euro eta txapela) / 2. saria
(50 euro) / 3. saria (30 euro)

-nola bidali lanak? gutunazal batean. lanarekin batera,
beste gutunazal batean ikaslearen/taldearen datuak (izen-
abizenak, ikastetxea, telefonoa)

-nora bidali? jesus obrero ikastetxea (euskara mintegia)

frantzia 32. 01002 vitoria-gasteiz. araba

-noiz? 2007ko otsailaren 2a, azken eguna

finalistak

>bertsolari finalistei abisua emango zaie bertsoa kantatzeko

>kantari finalistei abisua emango zaie finalean kantatzeko

otsailaren 10ean, 19:30ean dendaraban

bertan irabazleak aterako dira

**GABONETAKO HAUR PROGRAMA gasteizko udalaren kultura sailaren eskutik****GASTEIZKO HAUR-IKUSKIZUNEN III. ERAKUSTALDIA**

mendigorrotzeko kiroldegian, 19:00etan

(sarrerak: ikus. aurreko alea)

>XURDIN KOBAZULOAN GALDURIK (jokoak, dantza, abestiak...)

urtarrilak 3 (asteazkena)

etor zaitez ipotxen munduko magia ezagutzera. zu zeu abentura honetako
protagonista bihurtuko zara, joko, dantza eta abestietan murgilduta

TXOTXONGILO TXOROAK

txotxongilo ikuskizunak gizarte etxeetako antzoki & ekitaldi aretoetan, 18:00etan -
prezioa: 2 euro (sarrerak emanaldiaren egunean salduko dira gizarte etxean bertan).
adin egokia: 3 urtetik aurrera

>KOLLINS KLOWN: 'GURE OILO MARIMOTROILO' ETA 'TXOKOLATEZKO ETXETXOA'
urtarrilak 4 (osteguna), beñat etxepare antzokian (iparralde g.e)
"martzelina oiloa" eta "hansel eta gretel" ipuinetan oinarritutako bi obra hauen bidez,
laguntza ematearen abantailak ikasiko ditugu, bai eta beldurrari aurre egiten ere

EGUBERRIETAKO III. PARKEA**DENETIKO JARDUERAK,****hegoalde gizarte etxean**

-ordutegia: 11:00-14:00 / 16:00-21:00 (urtarrilak 5
goizeko txanda bakarrik)

-sarrera (gizarte etxearen kanpoko aldeko leihatilan): 2
euro txanda bakoitzeko (jarduera guztietarako balio du)

>HAURRENTZAKO IKUSKIZUNAK**elkartze aretoan, 12:30ean**

urtarrilak 2: monda lironda, 'elefanteen jaia' (pailazoak)

urtarrilak 4: anton irusta, ipuin kontaketa eta marrazkiak

urtarrilak 5: ana, 'elezaharra' (ipuin kontaketa)

jesus ibañez de matauco antzokian, 18:00etan

urtarrilak 2: potxin eta patxin, 'indioen lurraldea'

(pailazoak)

urtarrilak 4: zirika zirkus, 'zorionak' (klown-antzerkia)

GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA
Obra Social
Caja Vital Vital Kulxa

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

Tl. 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA Harategia

FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ¢ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ¢ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



El Clarete

JATETXEA



UNAI ETA PATXI FERNANDEZ DE RETANA
ZERKABARREN KALEA, 18

01008 GASTEIZ

945 263 874

IRVSTA

TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak



Zure arropa eta oinetakoa

www.sarludenda.com

Kubilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710



Erretardatzen, astaldunetik ostaldunera

JANTOKI
EGETARIANO

SAN FRANCISCO XABIERKOAKEN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 65 33

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tl: 945 22 34 33

ARTEPAN

Artisan



Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

EYSKAL LABELA

LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko

haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confeciones

Pinedo

Jantziak

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ

Tfnoa.: 945 23 39 90

MENDIA OPTIKAK 150 URTE

ikus dezazun

Zatoz eta eraman
opari -oroigarri
bat zure
erosketarekin

1856-2006

Mendia Optikan belaunaldiz belaunaldi zaindu ditugu zure begiak.

Gaur egun teknologia berrienak erabiltzen ditugu, baina hasi berrian bezala, gogo eta arreata berberaz zerbitzatzen zaitugu.


150 urte bete ditugu, eskerrak zuri.

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel 33.
Gasteiz





Euskaltzaleen paradigma berria

Atzo arratsaldean, ostiralero bezala, igarilekura joan nintzen nire bi seme-alaba nagusiekin. Saioa bukatuta, aldagelan geunden dutxa hartuta gozo-gozo, etxera joateko prestatzen. Aldagelan beste familia bat zegoen: ama bat bere bi seme-alabekin. Haien artean gaztelaniaz ari ziren, eta gu gure artean euskaraz. Familia hori aurretik bistaz ezagutzen nuen, eta onartu behar dizuet haiengan banuela aurreiritzia, familia erdaldun epel horietako bat zela alegia.

Aldagelan ginela nik haur horien amari korresiatu zerbait esan nion; gaztelaniaz, jakina. Halako batean bere semeak esan zion arrebari:

*** Beno, ba, egingo dugu hemendik aurrera euskaraz, ados?**

Eta bai, mutiltxoak bere amari begiratu zion onespen bila-edo, eta hortik aurrera nebarrebak haien artean euskaraz egiten hasi ziren. Handik apur batera, nire seme-alabengana hurbildu ziren, zer edo zer esan, eta elkarrekin ilea lehortzera joan ziren aldagelatik kanpo dauden makineta. Han ibili ziren guztiak txantxetan eta euskaraz.

Pozik esan dezaket haur horiek, batez ere hizkuntzaz aldatzeko mutiltxoak azaldu zuen naturaltasunak, nire aurreiritzi guztiak hankaz gora jarri zituela.

Euskararen erabilera bultzatzeko estrategia egokiaren bila ari garen honetan, pasadizo honek zerbait erakuts dezake, nire ustez.

Euskararen erabilera bultzatzeko hainbat bide jarrai daitezke: bat, goitik beherakoa, agintearena alegia; beste bat, pazientziarena, hau da, sinestea belaunaldi aldaketak dena konponduko duela. Ziurrenik bietariko elementuak behar izango dira, baina ez dira nahikoak izango.

Gaur egun martxan jarri behar den ereduak, arrakastatsua izateko, jendearen borondatean eta konpromisoan eragin behar du ezinbestean. Eredu horrek piztu behar digu Euskal Herriarroi euskararekiko arduraren zena, izan ere, gure esku dago, hein handi batean, gure ondorengoek gu baino errazago izatea euskaraz bizitzea.

Xabier Amurizak duela gutxi irrati saio batean gogorarazi zuen gaur egun ez dagoela inor euskaraz egiten debekatzen digunik eta, hala ere, euskaldunok ez dugula, oro har, euskaraz egiten. Zaila ikusten zuen ausia. Euskal Herri independente bat Euskal Herri euskalduna baino errazago zela zeritzon, pentsa! Jendeak euskaraz egin nahi ez badu, oso zaila dugu, ondorioztatu zuen.

Hor datza nire ustez erabileraren gakoa: nola

lortu euskaldunok euskaraz egin nahi izatea. Pertsonen borondatea ezin da inposizio hutsez ezarri, horrek beste garai batzuk ekartzen baitzizkigu gogora eta herritarrok ez genuke hori onartuko. Bestalde, ezin da pentsatu gauzak bakarrik aldatuko direla eta euskaraz egiteko borondatea euskaldunengan berez sortuko dela; batez ere, bizi dugun egoera diglosiko honetan. Egia da: auzi zaila dugu aurrean, dudarik ez. Baina euskaldunok zailtasunen aurrean adoretzen garen horietakoak omen garela entzun dut beti; beraz, erabiltzearen aldeko borondatea eta ardura sortzeko estrategiak bilatzeari ekin beharko diogu sendo eta tinko, auziaren zailtasunak gu kikildu gabe.

Pruden Gartzia Jakin aldizkarian idatzitako artikuluan, Olentzero, non zaude? Gogoeta bat Iruña-Veleiari buruz, euskararentzat paradigma berria eskatzen zuen, etxe berria euskaldunontzat. Aurreko iritzi batean nik zera eransiten nion: etxe berria, baina zutoin sendo eta teilatu zabalekoa. Etxe horren eraikitze-lanetan erabileraren kontuak zutabe bat izan behar du.

Goiko pasadizoak, nire ustez, zenbait pista eman ditzake xede horren inguruan:

** Kontzientzia dugun euskaldunok, euskaldun osoak garenok, eredu izan behar dugu euskaldun berrientzat eta, oro har, euskara erabiltzeko zailtasunak dituzten guztientzat. Nola eskatuko diogu lagun hurkoari euskara erabiltzea, guk bikotean edo koadrilan erabiltzen ez badugu?*

** Euskaldunok gure gain hartu behar dugu euskararekiko ardura: gure aurrekoengandik jasotakoa gure ondorengoei pasa behar diegu, eta bideak zabaldu behar dizkiegu guk gaur egun euskaraz bizitzeko ditugun zailtasunak haiek izan ez ditzaten. Ezin pentsa daiteke euskaraz ikasten ari diren gure seme-alabek guk gaur egun ditugun zailtasunak izango dituztenik euskaraz lan egiteko. Egiturak egokitu behar dira hori gerta ez dadin, eta lan hori gure belaunaldiari dagokio.*

** Euskaldun osoak garenok eskuzabaltasunez jokatu behar dugu erabiltzeko zailtasunak dituen ororekin eta baita erdaldunekin ere (guraso erdaldunak dituzten haurrentzat, gure lankide euskaldun berriarentzat...). Gudan laguntza emateko gogoia sumatu behar dute, eta ez aztertzailearen begi zorrotza. Euskaldunak zapalduta izan gara urte askotan, eta oraindik ere eremu ez gutxitan errespetu falta handia sumatzen dugu gurekiko. Hori horrela izanda ere, nire ustez, guk ezin dugu eragiteko ahalmena dugun esparruetan haiek bezala jokatu, alegia, beste jokamolde batzuk*

ezartzeko gaitasuna erakutsi behar dugu. Euskaldun berriek, euskaldun hartzaileek eta, oro har, euskararekiko jarrera ona duen edonork Euskal Herria euskalduna bilakatzeko egitasmo honetan bidaide nahi ditugula sumatu behar dute.

** Erdaldunen taldea, bestetik, oso zabala da eta ez da bat ere homogenea, euskararekiko jarreraren ikuspegitik. Batzuek euskararen kontrako jarrera argia dute. Beste batzuek, ordea, euskarak gizartearen har dezakeen garrantziaren arabera jokutzen eta jokatuko dute. Eta beste askok euskararen aldeko jarrera izan arren, norberaren ezintasunagatik (eta ezintasun hauen artean hainbat arrazoi ezberdin aurkitzen ditugu) ezin izan dute beren burua euskaldundu.*

Talde honen azterketak beste iritzi oso baterako ematen duenez, hemen utziko dut kontua, baina garrantzitsua iruditzen zait azpimarratzea erdaldunen artean jende asko dagoela euskararen aldeko jarrera duena eta bere belaunaldian euskaldundu ez bada, bide eman duena beren ondorengoak euskalduntzeko. Ez da gutxi.

Euskaldunok paradigma berri hori sortzeko gure aurpegirik gozoena eta ederrena aurkeztu behar dugu. Hala ere, horrek ez du esan nahi geureari tinkotasunez heldu behar ez diogunik. Horren harira uste du, agintean dagoenak, besteak beste Eusko Jaurlaritzak, euskalgintzan jarduten duten pertsonen babes osoa eman behar diela, haiengandik sortzen diren ekimenak bultzatuz eta horiek guztiak Jaurlaritzaren lehentasunen artean ezarriz. Ezin gara ibili ditugun baliabide eskasak barreiatzen. Oso egitasmo onak eta sendoak sortu dira azken urteotan jende askoren ahaleginari esker, eta horiek guztiak babestu eta indartu behar dira.

Epe luzeko politika izango da euskalduntzearena. Horretaz jabetuta gaude, eta hori horrela izanik, bide luzeak eragin ditzakeen frustrazioak eragozteko. Garrantzitsua da politika horretan xedearen epeak ondo bereiztea, hala nola zeintzuk helburu lor daitezkeen epe motzean (legealdi batean edo bitan), zeintzuk beharko duten epe ertainagoa (hamar urteko epea esaterako), eta zeintzuk izango diren epe luzeak (belaunaldi oso bat beharko dutenak).

Bukatzeko, jadanik erretiroa hartuta dagoen andereño Agurtzanek halako batean esan zidana ekarri nahi dut gogora: euskaldunok eskuzabaltasunez jokatu dugulako zarete zuek euskaldun eta izango dira euskaldunak zuen seme-alabak.

(*Zelai Nikolas Tiraka taldeko kide da)

[Artikulu hau estreinakoz Tiraka blogean plazaratutakoa da]

[naroa cuesta & ainhoa arriaga]

URA: etorkizuneko ALTXORRA

Azken hilabete hauetan euri gutxi egin du gure inguruetan, eta urtegien itxurak egoera kezagarria dela islatzen du. Adituek diotenez etorkizun hurbil batean uraren eskasia gero eta arazo larriagoa izango da gure herrialdean ere, munduko beste leku askotan jada gertatzen den modu berean.

Ura ezinbesteko altxorra da giza jarduera guztietarako, eta horregatik kontserbatu eta kontrolatu egin behar dugu. Ura aurreztu behar dugu, eta beharrezkoa denean bakarrik arretaz erabiltzen ikasi beharra dago. Gasteizko jendea ura aurrezten duen jakiteko kalera irten gara, eta hauek dira lortu ditugun erantzunak.

Ura aurrezten duzula uste duzu edo gehiegi kontsumitzen duzu?

Zer deritzozu gehiegizko ur kontsumoa egiten dutenei kuota garestitzeari?

Ur eskasia kezkatzen zaituen gaia al da?



IRAIA QUINTANA, INFORMATIKA IKASLEA

- Saiatzen naiz, baina nik uste dut gehiegi kontsumitzen dudala. Dutxan denbora dexente pasatzea gustatzen zait.
- Ondo iruditzen zait, uraren kontsumoa kontrolatzeko modu ona izango delako.
- Bai gero eta gehiago. Izan ere, gero eta euri gutxiago egiten du.



IOSUNE LEKUONA, PSIKOLOGIA IKASLEA

- Aurrezten saiatzen naiz, baina ez dakit lortuko dudana. Hortzak, ilea... garbitzen dudanean txorrota itxi egiten dut.
- Kontsumoa gehiegizkoa bada, ados nago. Baina, hala ere, muga ezin daiteke oso baxua izan.
- Ez asko, egia esanda.



IÑAKI AGIRREZABAL, UDALEKO LANGILEA

- Aurrezten saiatzen naiz, txorrota ahalik eta gutxien irekitzen.
- Oso ondo iruditzen zait. Neurri ona izango dela uste dut.
- Bai. Kezkatuta egon behar, gero eta golf zelai eta igerileku gehiago eraikitzen ari dira eta horrela, ur baliabideak murrizten dira.

IDAZLEENZUTABEA

AIREPORTUETAKO UKITUAK

[Iurdes Oñederra]



Hegazkin batetik besterako tarte luze aspergarri baten ondoren, lo faltarik gabe logalez, burua eta urdaila onetik kanpo, ez-dakit-zenbagarren ziurtasun kontrola pasa behar izan nuenean, nire poltsa-pitxi-krema-oinetako-ordenagailu-txamarra-jaka-dokumentazio eta gainerako gaineko guztiak X-izpien tunelean barrena zihoazela, nik (nire gorputzak alegia, ez neraman askoz gehiago ordurako) alarma-hotsa joarazi nuen metal atzemagailuan. Tximista bezala etorri zitzaidan emakumearen esku bortitz(egi), laster(regi), lotsagabe(egi)ek nire soin atal eta enborrak zentimetroz zentimetro arakatzen zituzten bitartean, eskuluze haren funtzio bera zuen kontrolatzaile arra ikusi nuen, eder askoa bera. Ez zuen lanik une hartan, kontrolean zehar gindoazenak emeak baikinena denak. Hara.

Emakumearen eskuak ni ukitu bitartean, otu zitzaidan, aukeran, nahiago izango nuela zein kontrolatzailek arakatu hautatzeko eskubidea eman izan balidate. Behin hasiz gero, nahiago nuela, gizon eder hark ukitzea emakume (nire gusturako) zatar samar hark baino. Aukera-aukeran, noski, nahiago nuke inork halakorik egin behar ez izatea (eta zinez uste dut aireportuetakoak jasangaitz, neurritz-kanpo eta ergel direla).

Homofobiaren ondorio bide da jende txintxoak arruntzat jotzen duen hainbat gauza: emakumeak emakumeek ukitzea kontroletan (eta gizonezkoak gizonezkoek), aldageletan emakumeak emakumeen aurrean biluztea (eta gizonezkoak gizonezkoen aurrean) edo saunetan lasai egotea biluzik sexu berekoekin, baina nahasiak direnean bainujantzia jarri behar izatea.

Erakargarritasun homoa heteroa bezain posible edo imposiblea dela badakigula onartuko bagenu denok eta horrelako txorakeriekin buruak berotu beharrean, bihotzak berotuko bagenu, pixka bat errazago litzateke ziurrenik (elkarrekin) bizitzea.

handinahirik gabeko hamalau urteko ibilbide oparoa



Hamalau bat urte dira Betagarri sortu zenetik. Lagun koadrilaz osaturiko talde musikalak gustukoa zuenari ekin, "inongo handinahirik gabe", eta urteen poderioz Euskal Herrian ez ezik Estatu espainoleko zenbait herritan, baita Europako batzuetan ere, barreiatu dute euren izena gasteiztarrek. Guztira bederatzi lan kaleratu dituzte ibilbide oparo honetan. Azkena, 'Hamaiika gara' izenburukoa, Oihuka diskoetxearen eskutik dator.

IÑAKI ORTIZ DE VILLALBA, abeslaria:

“Betagarrik bere ibilbidean zehar ez ditu gorabeherak izan, oreka mantendu du”

[josune velez de mendizabal]

[arg.: edorta sanz & oihuka]

Iñaki Ortiz de Villalba da taldearen aurpegi ezagunena, eszenatokietan ahots nagusia jartzen baitu. Abeslari gasteiztarrek cd berriak eskatuko zuen lana eta esfortzua aurreikusita musikara modu profesionalean jauzi egin berri du. Eta ondo asmatu ere Iñakik, izan ere, 'Hamaika gara' cd-ak dagoeneko bigarren edizioa kaleratu du.

Zenbait lagunek musika taldea osatzen dute zaletasuna aitzakia. Hamarkada luzearen buruan musikan jarraitzen dute, birak egiten eta bederatzi disko argitaraturekin (maketa barne). Hastapeneko helburuak edo nahia bete al ditu Betagarrik?

Guk gustuko genuena egiteari ekin genion duela 14 bat urte edo. Lehenengo diskotik ordea 10 urte pasa dira. Garai horretan nondik aterako zen kontua ez genekien. Bertsioak egiten hasi ginen eta ostean lehen maketa kaleratu genuen. Gero apurka-apurka eta inongo handinahirik gabe gure bidea egiten hasi ginen.

Musika estilo berritzailea izan zen Betagarrik sortu zuena 90. hamarkadan. Reggae doinuak Euskal Herrian ezagunak baziren ere haize musika-tresnak sartu baitzituen taldeak. Festa giroarekin parekaturiko taldea. Hala ere, zuen kantetan jaia eta dantza egiteko gonbitea segidan antzematen bada ere, zuen letretan konpromisorik ez da falta. Hauek al dira Betagarri taldearen ezaugarri nagusiak?

Batetik, 80. hamarkadan kokatu behar



gara, bertan bizi zen egoera soziala eta politikoan. Betagarri garai horretatik gertu zegoen talde berria zen eta ondorioz ezin errebindikazioa utzi gure letretatik kanpo. Bestetik, ska doinuak dira nagusi gure kantetan baina horretaz gain oso argi genuen bandaren kontzeptua. Horregatik gure ezaugarri nagusietako bat haize musika tresnak dira, alegia, metalak. Hortaz, esan dezakegu Betagarrik errebindikazioa eta jai giroa uztartzen dituela bere musikan.

Ibilbide luze honetan, eta hainbeste kide-tako taldea izanik, 9 lagun guztira, ez al da suertatu egitasmo musikala kili-kolo jarri duen inflexio punturik?

Beno leku guztietan bezala bidean sortzen diren kontuak daude. Hala nola, batetik, iaz Metak-en itxiera gertatu zen. Gure diskoetxea zena desagertu eta umezurtz geratu ginen. (Honen ondorio zuzenetako bat, 'Hamaika gara' lanaren atzerapena). Bestetik, gu familia handi bat gara eta familia guztietan bezala denetarikoa

'Hamaika gara' kaleratu bezain laster agortua

Azaroan dendetan salgai eta dagoeneko abendurako lehen edizioa agortua zen. Durangoko Azokarako bigarren edizioa jarri zen abian. Berri bikaina Betagarri taldearentzat. "Hamaika izan gara, hamaika gara eta hamaika izango gara. Hamaika gara antifaxistak, hamaika gara musikariak eta hamaika inkonformistak", dio Iñaki Ortiz de Villalba Betagarriko ahots nagusiak. Arrazoi horrengatik Betagarri talde gasteiztarrek dakarren azken lanak 'Hamaika gara' du izena. Ska doinua euskarri izanik, reggae, rock, pop eta punk erritmoak uztartu dituzte gasteiztarrek cd-a osatzen duten hamalau kantetan.

Jaia eta umorea ez da sekulan falta izan Betagarri taldearen ibilbide musikalean orokorrean eta horren adibide Oihukarekin kaleratu duten diskoaren azaleko argazkian ikus daiteke. Futbol talde antzera ageri da bederatzi lagunez osatutako taldea. Hori baita, futbolariarena alegia, taldeak azken lanerako aukeratu duen zentzu bikoitzeko estetika.

"Ez gara ohiko talde bat eta diskoari izena ematen dion esamoldearekin jolastu nahi izan dugu -aitortu du Iñakik-. Futboleko bezala gure koloreak eta lur eremuak defendatzen ditugu. Kontzertu bakoitza partida bat da eta liga ezberdinak ere jokatu ditugu, bai etxean bai kanpoan". Inoiz baino indartsuago datoz gazteak, eta konpromisoa ere ez da falta euren letretan, 'Aske naizela amestu dut', 'Bidea gara' edota '1976, martxoak 3' kantak adibide batzuk direla, besteak beste.

Euskarazko abestiez gain oraingoan Betagarri katalanez eta ingelesezko kantuak ere bildu ditu 'Hamaika gara' lanean. Kolaboratzaileen artean berriz, Koldo Uriarteren teklatuak, Raul Romoren saxoa, Ruben Salvadorren tronpetak eta Amaia Canteroren koruak agertzen dira.



harremanak egoten dira, batzuekin hobeto moldatzen zara besteekin baino, baina hala eta guztiz ere aurrera egin dugu.

Taldeak gehienek hasieratik bidea elkarrekin egin baduzue ere zenbait baxa ere izan dira, ezta?

Bai, hala da. Baina hori normala da. Batzuek alde egin dute hamalau urte hauetan. Arrazoiak, aitatasuna dela edo dena-delakoa. Disko honetan ordea, fitxaje berria dugu, losu Izagirre baxujolea. **Zure kasuan Iñaki, aurtengoak berritasun bat ekarri du. Orain arteko lanbidea utzi eta musikan modu profesionalen arituko zara hemendik aurrera. Zerk bultzatu zaitu hainbeste denbora eta gero hori egitera?**

Beno, orain arte nola edo hala sindikatuan aritzea (Gasteizen LABen egiten zuen lan) nolabait osagarria izan da... batzuetan bestetan baino gehiago, noski. Entseietarako edo biran joateko zegozkidan opor egunak hartzen nituen, baina horiekin azkenaldi honetan ere ez zen nahikoa. Azken finean leku batetik bestera nabilen. Nire lan oporrak taldean birak egiteko erabiltzen nituen eta azkenean erlaxatzeko eta gozatzeko tarterik ez duzu. Musika lanbidea ez izan arren lana ere bada eta ostean nire opor egunak agortzen nituen. Adibidez, Alemaniara joan garenean jotzera joan gara eta turismoa egiteko edota erlaxatzeko tarterik ez dugu izan. Horrengatik aurreikusi nuen disko honekin lan piloa izango genuela eta ezingo nituzkeela kontzertuak, entseiuak eta birak 8 orduko lan jardunaldiarekin osagarri egin. Edonola ere, erabaki honek musikan modu profesionalago batean lan egiteko balio izango dit.

Euskal Herrian jotzeaz gain Betagarri aspaldian zabaldu zuen bere merkatua Kataluniara. Ostean Europako beste

herrian, baita Japonian ere, aritu zarete, nolatan?

Bai horrela da, Euskal Herritik asko mugitzen garen arren harremanak egin genituen Kataluniako bulego batekin eta horren ondorioz zenbait kontzertu eskaini genituen Bartzelona eta Gironako kostaldeko herrietan. Ordutik birak egiten ditugu Kataluniatik, non ska doinuak asko atsegin dituzten. Horretaz gain, Alemanian, Suitzan, Amerikako Estatu Batuetan eta Japonian izan gara. Orain, eta disko berriaren aurkezpena dela eta, Estatu espainoleko zenbait tokitan joko dugu, baita Galizian ere. Aurten, eta momentuz data guztiak itxita ez baditugu ere, Danimarkara joango gara, besteak beste. **'Hamaika gara' zortzigarren diskoa da. Nola egiten dio aurre Betagarri egungo panorama musikari?**

Lehenik eta behin albiste on bat aipatu beharra dugu. 'Hamaika gara' diskoaren lehenengo edizioa Durangorako baino lehen agortu zen eta azokarako bigarren bat egin behar izan da, oso berri ona da. Bestetik, Betagarri bere ibilbidean zehar ez ditu gorabeherak izan, hau da, oreka mantendu du. Ez da muturreko taldea izan, orain salmentetan lehena eta ostean azkena diren horietakoa, alegia. Kontzertuetan batez ere sentitzen da gure zaleen erantzuna. Agian irratian gure musikak ez du jasotzen puntuazio berezirik baina kontzertuak beti daude pil-pilean. Ez da uda bateko taldea eta hori ona da. Azkenik, panorama musikari buruz saturazioa badagoela pentsatzen dut. Liburuekin bezala, hots, eskaintza asko baina hainbestearinoko irakurlerik al dago, jendeak irakurtzen al du? Dena den, guk aurrera jarraituko dugu orain arte egin dugun bezala, handinahirik gabe.●

DINUX, Gasteizko DIOCESANAS-EK sortutako EUSKARA HUTSEZKO DOAKO software LIBREA

Sistema eragilea eskuragarri dago Diocesanas-ek horretarako
sortutako web-ean: **WWW.DINUX.ORG**

[erredakzioa]

Dinux Linux sistema eragilearen banaketa da eta Diocesanas-eko talde osoak software librearen alde egindako apustua da. Bere izena Diocesanas eta Linux edo D Ereduko Sistema Eragile bat egitearen emaitza da.

Euskaraz

Dinux Diocesanas-ek euskararekin eta bitzta akademikoko alor guztietan elebitasuna sustatzeko hartu duen konpromiso sendoareen barnean kokatzen da.

Ildo horretatik, Dinux-en edukia euskara hutsean dago, nahiz eta A eredu jarraitzen duten ikasleentzat pentsatutako bertsio bat ere badagoen.

Diocesanas-en irakasleek eta Informatikako Heziketa Zikloetako ikasleek, Caja Vital Kutxiak emandako diru laguntzei esker, dagoeneko urtebete baino gehiago daramate sistema eragile honen inguruan lanean.

Dinux-ek 100 programa baino gehiago

Dinux osatzen duten 100 programen artean nabarmendu beharra dago testu-orrialdeak, testu-tratamendurako programa, aurkezpenak edo datu-baseak dituen *suite* edo pakete ofimatikoa (Open Office 2.0).

Dinux-ek, gainera, web nabigatzaile bat ere badu (Firefox), berehalako mezularitza programa (Gaim), bata CD/DVD (K3B)



kopiarako eta beste bat diseinu grafikorako (UIMP 2.0), maiz erabiltzeko beste hainbat aplikazioen artean.

Kode irekiko live banaketa

Dinux *live* banaketa bat da. Honek esan nahi du Dinux-en abantaila guztiak izateko, ez dela beharrezkoa gure ordenagailuko disko gogorrean aplikazioak instalatzea. Nahikoa da sistemari CDtik hasteko adieraztea eta gure memorian kargatzea.

Hala eta guztiz ere, behin Dinux probatu ondoren gure ordenagailuan instalatu nahi badugu, gure disko gogorrean instalatu daiteke eta Windows bezalako beste sistema eragile batzuekin banatu.

Gainera, Dinux kode irekiko sistema da. Xehetasun horrek GNU lizentzia baduela adierazten du, eta beraz, bere erabilera, banaketa eta aldaketa libreak direla.

Proiektu dinamikoa

Dinux ekimena ez da web orrian jartzearekin amaitzen. Diocesanas-en asmoa da epe laburrean sistema eragile hau bere lau kokaguneetako (Nieves Cano, Mendizorrotza, Arriaga eta Molinuevo) mediateketan implementatzea.

Egun, software berriaren lokalizazio eta itzulpenen ari dira lanean, batez ere hezkuntza mailan.

Xedea Dinux %100 erabilgarri izango den tresna bihurtzea da, egunero berrituz eta aberastuz joango dena.

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behean - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ

Dalvez
argitarazleak

diseinu grafikoak diaz de olano kalea, 22 tl: 652 77 65 09
maketazioak fx: 945 24 52 69 info@dalvez.com

Bai Euskarari Zuzentzea
bai
Guk zerbizua
euskaraz

KUNKA!, antzerki & telebistarako umore apustua
AGINAGALDE, BEATO eta **DE MIGUEL** aktoreen eskutik:

“KUNKA BAI, ABURRITU EZ!!”

Hainbat eta hainbat izenen arteko bilaketan ibili ondoren, Josean de Miguel, Gorka Aginagalde eta Eloi Beato gasteiztarrek euren egitasmo artistiko berria KUNKA! izenez bataiatu dute. “Kunka bai, aburritu ez!” lelopean martxan da XXI. mendeko antzerkian umorezko talka sortuko duen ekoiztetxe arabarra. Kunka!-ren lehen emanaldia biran da dagoeneko, ‘Meando fuera de tiesto’ izenburupean otsailaren 9 eta 10ean jasoko du Gasteizek estreinu ofiziala.

[josune velez de mendizabal]

[arg.: edorta sanz]

Zer da Kunka baina? “Ukraniako hiri inportante bat, Cuenca hiriaren antzinako izen zaharra, Bolibiako doinu musikal zoragarria..., baita bi akerren arteko talka ere”, azaldu du Eloi Beato aktore eta antzerki zuzendariak. Eta hori da hain justu ere, hirukoteak hemendik aurrera dakarren proposamena: “Antzerki munduari *kaña* sartu behar zaio!”.

Barrearen sendagaiaren bitartez osasuna saltzen dute Josean de Miguel, Gorka Aginagalde eta Eloi Beato aktore gasteiztarrek aspaldidanik. Ibilbide profesional luzea dute hirurek eta banaka, nor bere proiektuetan aritu bada ere, interpretazioaren bidean behin baino gehiagotan elkartu dira. Urtetako lanak emandako jakituria, esperientzia eta nortasunaz baliatuz egungo heldutasuna aprobetxatu nahi izan dute hiruron artean Kunka! izenpean ekoiztetxe propioa gauzatzeko. “Onerako zein txarrerako lanbidea ezagutzen dugu eta formula zehatzik oraindik ezagutzen ez badugu ere, ikusleriari zer gustatzen zaion asmatzen badakigu. Gure artea, egoten jakitea eta planta. Jendeak ezagutzen gaitu eta ikusi dugu *piszinara* botatzeko momentua dela hau”, aitortu du Eloi Beatok. Josean de Miguel eta Gorka Aginagalde ere erabat gogotsu agertzen dira talde berriarekin.



Sobradun antzerki taldean, Ñake bikote formatuan, ‘Cocidito Madrileño’ eta ‘Todos nacemos vascos’ antzezlanetan elkarlanean aritu zarete. Norberak bere proiektuak bazituen ere sekulan ez zarete erabat bananduak egon. Orain berriro batzen zarete ekoiztetxe propioa sortuz. Nondik sortzen da Kunka!?

Sosa ateratzeko asmoarekin batez ere. Horrela da..., izan ere, gidoia, aktoreak eta zuzendaria da egungo espektakuluak eskatzen duena eta hori dena guk bagenuen. Hortaz, goazen gurea propioa sortzera! Bizitzak bildu gaitu, gure ibilbideak oso paraleloak izan dira betidanik eta azkenik, ezaugarri artistikoek bultzatuta hirurok egitasmo komun batean aritzea ekarri du. Gainera hau ekonomikoki mesedegarria zaigu, azken finean orain arte egiten ari ginen lan bera da, baina lehen beste norbaitek eramaten zuen dirua eta orain, ordea, guk eramango dugu... baldin eta irabazten badugu, noski!

Hortaz, egun langileak izateaz gain enpresarioak ere bazarete, nola eramaten da lanbide bikoitz eta antza jarreraz kontrajarri hori?

Enpresario izatea da akaso gutxien gustatzen zaiguna, hala ere balantzan jarri eta ekonomikoki merezi badizu

azkenean egiten duzu. Gure onerako denez izaera horri bere denbora tarteak eskaintzen diozu eta listo.

Noiz bururatu zitzaizuen hiruron arteko ekoiztetxe bat gauzatzearen ideia?

Aspaldian genuen gogoia. Sobradunen ibili ginenetik aipaturiko gaia zen. "Zerbait egin behar dugu batera", esaten genuen, eta orain heldu da garaia. Orain sortu da egoera egokia. Gainera hirurok gasteiztarak izanik asko errazten ditu bidea eta lana. Elkarren artean ezagunak izanik kooperatiba bat sortzea bururatu zitzaigun eta hori da hain zuzen ere egin duguna. Hala ere, ezagunak izateagatik ere elkar jo behar badugu zalantzarik ez egingo dugula!

Ekoiztetxea telebista nahiz antzerkiko lanak egitera bideratua dago. Halarik ere mementoz antzerki mundutik abiatu zarete. Zergatik? Errentagarriagoa al da antzerkia telebista baino?

Ez, telebistan agian teatroan baino diru gehiago irabazten duzu, baina antzerki munduan hasi gara mugitzen gehien eta hobekien ezagutzen duguna delako. Gainera estreinako emanaldiarekin guk geuk aurkeztu dugu gure burua, hau da, ez gara telefono deiaren zain geratu. Produktuan konfiantza dugulako egin dugu horrela. Salmenten arabera kobratuko dugu, eta ez katxea eskatuz. Hala nola, antzerkira datorren jendearen

araberakoa izango da gure soldata. Zergatik? Gure komedia eta gure umorea ikustera datorren jendeak gustuko izango duela pentsatzen dugulako. Errazagoa zaigu, beraz, gure burua antzerki munduan ezagutzera ematea eta ostean telebistara jauzi egitea. Gala eta aurkezpen ekitaldietan present egotea ere bilatuko dugu. Azken honetarako sketxekin ariko gara.

Ekimena beraz, apustu ala arriskutzat joko zenukete?

Arriskua bainoago apustua izatea espero dugu. Momentuz oso pozik gaude. Hasi berriak eta dagoeneko programatzaileak deika ari zaizkigu eta.

Gainera propaganda eta promozio propioa nola gauzatu zuek asmatu duzue, ezta?

Bai. Antzezlanak egingo dugun herri edota hirian egun batzuk lehenago agertu eta "Kunka bai, aburritu ez!" lelopean hiru arkitekto iritsiko dira herriko plazara. Maletinean hiria erabat eraldatzeko proiektuak daramatzate, berau ireki eta une horretatik aurrera barrea izango da nagusi herrian.

Etorkizunean ere bestelako antzerki taldeekin eta aktoreekin elkarlanean aritzea ere baduzue aukeren artean, ezta?

Bai, noski. Ez dugu soilik hiru komikoren saioa eskaini nahi. Antzezle desberdinekin lanak ekoizteko asmoarekin ere sortzen



da Kunka!. Gure sketxek funtzionatzen badute eta eskatzen badizkigute aurrera!, baina bestelakoak ere egingo ditugu.

Zeini zuzendua da Kunka!-ren lana?

Edozein etor daiteke gure antzezlanak ikustera eta gozatzera, dena den batez ere ohikoa ez den ikusleria da antzerkira erakarri nahi duguna. Hau da, ikusle gazteak, zeinek 10/15 euro antzerki sarrera batean gastatzeko arazoak

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aitzogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

geugasteiz.com

Bacalao Giraldo




- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

Bacalao Giraldo

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldarian plaza
GASTEIZ



dituzten, eta ez ordea kalimotxoa erosteko orduan. Hala ere, ikusleak ez badatoz gu joango gara eurengana! **'Meando fuera del tiesto'** da zuen lehenbiziko antzezlan. Dagoeneko biran hasi da, baina Gasteizen izango da nolabaiteko estreinu ofiziala otsailaren 9an eta 10ean, ezta? Zertaz arituko zareten aurreraterik bai?

Baaaii... noski!! Egia da Dulantzín,

Gernikan eta Zumaian egin berri dugula, ostean otsailean etxean gure onena eman ahal izateko. 30 bat sketx ez osaturiko lana da. Ziztu biziko erritmokoa. Hari gidaria sketx motz desberdinen artekoa umorea da. Jendea, ordu eta erdiko iraupena duen antzezlari honetan, barrez lehen dadin da gure xedea. Udarako, berriz, 'Sexo gratis' ikuskizun berria, bigarrena alegia, prestatuko dugu●

'meando fuera del tiesto'

>estreinaldia: otsailaren 9an & 10ean gasteizen, principal antzokian
>gidoia eta aktoreak: kunka!, gorka aginagalde, eloi beato, josean de miguel
>argiztapena: daniel ibisate >musika: pirata
>zuzendaritza: eloi beato >iraupena: 90 minutu
>gaia: 30 sketx laburrez osatutako antzezlana. umore zirikatzaile eta gordina nagusi. bikote bizitzaz, lan munduan dagoen behin-behinekotasunaz, zentsuraz, futbolaz, telefonia mobilaren mundu ulertezinaz eta abarrez aritzen dira gasteiztarak.


www.kunkaproducciones.com



bitxiak / zilarra / osagarriak

Urte berri on

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



IRAIDE AKORDARREMENTERIA

“Iraganetik gaur eguna bizitzen ikasi dut, eta eguna bizitzeko etorkizunean oinarritzen naiz.”

[ainhoa arriaga / naroa cuesta]

[arg.: edorta sanz]

“Lagunekin egotea da bere zaletasunik maitatuena eta haiek uste ez badute ere, oso lotsatia dela aitortu digu”

“Bakardade momentuetarako egunerokoa du, bere sentipen intimoenak idazteko erabiltzen duena”

Zergatik aukeratu duzu Nikaragua praktikak egiteko? Joan behar naizela barnean sentitzen dut. Nikaraguan etorkizuna nola ikusten duten ezagutu nahi dut.

Zer egingo duzu bertan? Komunitade batera noa klaseak ematera, baina ez dakidana da zein motatako baldintzak aurkituko ditudan.

Zer espero duzu bidaia horretatik? Beste mundu bat ikusi nahi dut, eta zertan lagundu dezakedan ikusi.

Zer botako duzu gehien faltan? Lagunak, familia eta hemengo giroa... eta ‘Goenkale’ (barre artean).

Duzun biziorik handiena? Pintxoak eta mostoa. Mostoa olibarekin noski, bestela ez dago mostoa deitzerik.

Bertuterik? Adiskidetasuna ematea eta entzuten jakitea.

Akatsik? Oso burugogorra naiz arrazoia dudala uste dudanean...

Zer da gainontzekoengandik gehien baloratzen duzuna? Adiskidetasuna, konfiantza, zintzotasuna...

Zure gorputzeko atalik gustukoena? Begiak. Handiak direnez, dena ikusten laguntzen didate.

Fisikoki zerk erakartzen zaitu



gainontzekoengan? Begiradak eta eskuek.

GEU aldizkaria eta elkartearen berririk? Txikia nintzenean etxera heltzen zitzaigun.

Gasteizko gaua non? Kutxi kalean. Hori da nire giroa.

Liburu bat? Ezin dut bakarra aukeratu: ‘Lagun izoztua’, ‘Bakartasunez bi hitz’ eta ‘La sombra del viento’.

Film bat? ‘Un paseo para recordar’. Jada gainditu dudana garai bat ekartzen dit gogora.

Iraidek bere bizitzako bidaiarik garrantzitsuenari ekingo dio hemendik gutxira. Haur Hezkuntzako unibertsitate ikasketak aurten bukatuko ditu eta Nikaraguara joango da praktikak egitera. Izatez Lekeitiarra den baina Gasteizen bizi den 21 urteko neska parrandazalea eta musikazalea da Iraide.

Janari bat? Arrautza frijitua, patata eta piperrekin eta Idiazabal gazta postrerako.

Abesti bat? Euskal musika entzuten dut gehien, eta... ‘Behin batian Loiolan’ aukeratuko dut.

Zer da Gasteizek duen onena eta txarrena? Onena, gero eta euskara gehiago entzuten dela, eta txarrena, oraindik hainbat lekutan ez daukagula gure hizkuntzan aritzeko aukerarik.

Ametz bat? Euskal Herri libre batean, batera bizi gaitezen (Etzakit taldearena).

Amesgaizto bat? Nire inguruko jendea injustuki atxilotua izatea sentitzen dutena defendatzeagatik.

Iragana, gaur eguna edo etorkizuna? Iraganetik gaur eguna bizitzen ikasi dut, eta eguna bizitzeko etorkizunean oinarritzen naiz.

Zer eskatzen du herriak? As-ka-ta-su-na (...abestuta)●

ahotsak

KONPONBIDERAKO EREDU

Ados jarri dira. Posible egin dute. Gizonezkoek ez bezala, eurek, emakumeek, ideia askotariko eta Euskal Herri osoko emakumeek, konponbidearen aldeko konpromiso argia erdietsi dute. Gatazkaren konponbidean emakumeen parte-hartzea ezinbestekotzat jota, hiru urteko lan isilaren emaitza da Ahotsak ekimena. Iazko apirilaren 8an ekimena eta hitzartutako agiria aurkeztu zituztenetik hona, atsedetik gabe aurkezpenak egiten ibili dira, bake eta normalizazio prozesua bultzatzeko asmoz.





[edurne begiristain]

[arg.: argazki press]

Banatzen dituen albo batera utzita Euskal Herriko alderdi politiko ia guztietako eta sindikatu guzti-guztietako emakumeak bildu dira Ahotsak-en (PP, UPN eta UMP alderdi eskuindarretako emakumeak ez daude bertan). Ahotsak Donostiako Miramar Jauregian aurkeztu zen, pasa den urteko apirilaren 8an. Bertan 50 emakumek baino gehiagok izenpetutako agiria aurkeztu zen: EAJ, EA, Batasuna, AB, PSE-EE, PSN, PS, EB-berdeak, IUN-NEB, Aralar, LCR, Nafarroa Bai eta Plazandreak alderdietako kideek sinatu zuten agiria. Baita ELA, LAB, ESK, CCOO, UGT, CGT, EILAS eta EHNE sindikatuetakoez ere. Gatazka konpontzeko aukerak egon badaudela sinetsita daude sinatzaileak, eta elkarriketa aldarrikatu dute horretarako. "Gure irudiko, adostasuna lortzearen hitz egitea aurrez eman beharreko urratsa da, eta hori demokrazia indartzea da, ez ahultzea", dio dokumentuaren pasarte batek. Konponbidea bilatzen laguntzeko, "aurreiritzi eta baldintzarik gabeko elkarriketa abiapuntu ona" dela diote,

pertsona ororen eskubideen errespetua bezala.

Hiru oinarriak

Hiru oinarri ditu Ahotsak-ek bake bidean aurrera egiteko hitzartu duen dokumentuak. Batetik, bakea guztion zeregina dela uste dute, "eskakizun kolektibo eta lehentasun politikoa" delako. Ahotsak-en irudiko, bakea ez da edozein indarkeria mota desagertzera mugatzen, justizia eta demokraziarekin zerikusia duela uste dutelako. Bigarren oinarri gisa egitasmo guztiak egingarri izatearen eta bat bera ere ez ezartzearen ideia hartu dute emakumeek. Eta hirugarrenik, euskal herritarren erabakia errespetatu behar dela aldarrikatu dute. Hala, herritarrek esparru politiko-juridikoa aldatzeko edo mantentzeko borondatea badute, "guztiok beharrezko diren berme demokratikoak eta adosturiko prozedura politikoak ezarri eta errespetatzeko konpromisoa" hartu behar dugula uste dute erabaki hori gauzatu dadin, eta, "beharrezkoa balitz, erabakiak lege araudian isla izan dezan".

Horixe da Ahotsak-eko emakumeak

jorratzen ari diren bidea. Eta bide hori emakume gisa ibiltzen ari dira, emakumeek bakearen aldeko eragile aktiboak izan behar dutela sinetsita baitaude. Bakearen aldeko "militantzia komunean" elkarrekin aritzeko konpromisoa hartu dute Ahotsak-en, kontuan hartuta bakeak "saboteatzaile ugari" dituela beti gatazka guztietan. Gatazkaren ondorioak pairatzen dituzten heinean, konponbidean ere parte hartu behar dutela uste dutelako elkartu ziren emakumeak apirilean Ahotsak-en itzalpean, eta prozesua "blindatzearen" alde lan egingo zutela agindu zuten, "hondoa jo ez dezan, zapuztu ez dadin eta prozesuan zehar nahiz konponbidean, emakumeak partaide aktiboak izan daitezen eta haien papera eta haien protagonismoa aldarrika dezaten".

Atxikimendu ugari

Apirilean manifestua aurkeztu zutenetik ibiltzen hasi zen Ahotsak. Besteak beste, atxikimenduak biltzeari ekin zioten eta eragile sozial eta politiko guztiekin harremanetan jartzen hasi, eta babes zabala jaso du taldeak azken hilabeteotan. Ahotsak-en



adierazpen berriaren aurkezpena. euskalduna jauregia (2006-12-2)

proiektua gizarteratzea eta atxikimenduak jasotzea izan da bere lan nagusia. Ekimenarekin bat egin duten 5.000 sinaduratik gora jaso dute dagoeneko. Halaber, hainbat elkarte bat egin dute ekimenarekin, eta babesa publikoki ere agertu diote. Hala nola, Espainiako Aktoreen Batasunak Emakumeak Elkarturik izeneko aipamen berezia egin zion Ahotsak-i, eta saria eman zion.

Laster bildu zitzaizkien Ahotsak-eko emakumeei mugimendu feministako taldeak, manifestua sinatuta. Gatazkaren konponbidean emakume aktiboak direla eta eragile politiko, sindikal eta sozial guztiek irtenbidea aukera berdintasunean izan dadin neurriak eta konpromisoak har ditzaten lan egingo dutela hitz eman zuten.

Euskal Herriatik kanpo ere indarrak biltzen dabil Ahotsak, eta nazioartetik atxikimendu ugari jaso ditu jada. Kataluniatik, esaterako, hango indar politiko eta sozialen ordezkari askok eman diote babesa. Bai eta, Argentina, Gales, Espainia, Irlanda, Israel, Kolonbia, Kosovo, Letonia, Liberia, Serbia, Suedia, eta Txekiatik ere atxikimenduak eman dizkiete taldekoei. Bilerak ere izan dituzte nazioartean

agintean dauden hainbat emakumerekin. Esaterako, Afganistango Asanblea Nazionaleko legebiltzarkide den Shinkai Zabine Karokhailekin bilera egin du Ahotsak-eko ordezkaritza batek.

Zubi lanetarako prest

Apirilaren 8an Ahotsak-ek argia ikusi zuenetik bake eta normalizazio prozesua bultzatzeko nahia azaldu zuen emakume taldeak. Prozesuaren "blokeo egoerak", baina, elkarriketaren aldeko apustua berrestera behartu zituen Ahotsak-eko emakumeak, irailaren 7an egindako agerraldian. Zabalduko prozesua ezin dela zapuztu adierazi, eta alde guztiei elkarriketari heltzeko erantzukizun politikoa eskatu zieten. Bake bidean lanean segitzea merezi duela iritzita, "zubiak eraikitzeko" prest agertu ziren Euskal Herri osoko eta ideia askotariko emakumeak. Hala, prozesuan edozein arrisku, geldiune edo arazo ikustekotan, "blokeo egoera horretatik ateratzearen alde" lan egiteko konpromisoa agertu zuten.

Prozesuak bizi zuen "zalantza egoeraren" aurrean elkarriketa, malgutasuna eta

konfiantza eskatu zituzten adostasun politikoak bilatzeko orduan. Eta, Ahotsak-ek akordioa posible dela erakutsi duela gogorazi zuten emakumeek. Horrela, emakume taldeak apirilaren 7an kaleratutako dokumentuaren hiru oinarriak aintzat hartzeak egungo egoera gainditzeko lagunduko lukeela iritzi zion. Hartara, prozesuaren krisia gainditzeko ahaleginak eskatu zizkieten alderdi guztiei.

Udal foroak

Prozesuak une zailak bizi arren, bake bidean aurrera egiteko erabaki irmoari eutsi diote Ahotsak-en, eta urratsak eman dituzte horri begira. Bi izan dira pauso garrantzitsuenak orain arte: batetik, elkarte gisa eratu egin dira, ekimenaren sendotasunaren erakusle. Europako elkarte gisa antolatu dira, eta beraz, Euskal Herriko Emakumeen Ahotsak da, hemendik aurrera, izen ofiziala.

Eta beste ekimen garrantzitsuenetakoa, eta orain arte jendetsuena eta nagusiena, iragan urteko abenduaren 2an burutu zuten, Bilboko Euskalduna Jauregian. Ahotsak gaur arte adostasun mailarik zabalena lortu duen ekimena dela ongi asko



islatu zen egun horretan Euskaldunan. Ia 3.000 emakume inguruk, sentsibiltate eta iritzi askotarikoak, lepo bete zuten Euskalduna Jauregiaren areto nagusia. Halaber, Ahotsak-en proposamenarekin bat egin nahi izan zuten zenbait gizonezko ere agertu ziren.

Orain arteko asmoak berrestez gainera, pauso gehiago iragarri zituzten Ahotsak-eko emakumeek ekitaldi horretan, sortu zirenetik bildu dituzten ehunka atxikimenduek indartuta. Hala, bake eta normalizazio politikorako prozesuan ekarpenak egiteko eta komunikazio, gogoeta eta topaketarako guneak sortzeko asmoz, udal foroak sustatzeari ekin dio Ahotsak-ek. Foro horietan, bakeari bultzada emateko lanean aritzeko prest dauden

ahotsak gaur arte
adostasun mailarik
zabalena lortu duen
ekimena dela ongi
asko islatu zen egun
horretan euskaldunan


emakume guztiak bildu nahi dituzte.

Eta beste alde batetik, nazioarteko sarea osatzeko asmoa agertu du taldeak. Zenbait gatazkatan bakearen alde lanean ari diren

mundu osoko emakumeen mugimenduekin landutako harremanetatik sortuko litzateke sare hori.

Ekimen horien guztien bitartez, helburu argi baten alde modu isilean baina atsedetik gabe lanetan ari da Ahotsak: prozesua atzeraezina bilakatzeko lanean ari da. Eta ildo horretan, zenbait eskakizun egin die Ahotsak-ek eragile guztiei: topaguneak bilatzea, besteari egia eratal bat badagokiola aitortzea, elkarrizketa erabiltzea, erantzukizunaz jokatzeko, eta prozesuan eta adostasunean genero ikuspegia ezinbesteko balioztat hartzea. Oinarri horiek hartuta, Ahotsak-ek deialdi berezia egin dio gizarte osoari, baina bereziki, emakumei: prozesuan eragile izan eta parte hartzeko.

zuhaitza-ahotsak proiektua eta adierazpen berria: <http://ahotsak.blogspot.com/>



Otsoa:

babestu ala hil?



andres illana, otso taldeko kidea

Arazo iturri bilakatu da otsoa Euskal Herrian agertu izana. Otsoaren erasoei nekez aurre egin ahal dieten abeltzainen kexuek hala erakusten dute, bederen. Ez du ematen, ordea, otsoak sortutako arazoei konponbide erraza dutenik, are gutxiago otsoak gure artean gelditzeko asmoa duela jakinda. Otsoa kontserbatu beharreko animalia dela diote batzuek. Euren ogibidea bermatu nahi bada, otsoa desagertu behar dela diote abeltzainek.

[edurne begiristain]

[arg.: alex gonzalez & argazki press]

Hainbat ikerketaren arabera, otsoak gelditzeko etorri dira Euskal Herrira. Egun, hogeita hamar inguru daude Araban eta Bizkaian, lau taldetan banatuta. Jorge Etxegarai eta Andres Illana adituek Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailaren Biodibertsitate Zuzendaritzari bidalitako txosten batek dioenez,

otsoa Euskal Herriko antzinako lur eremuak berreskuratzen ari da. Emaizak argigarriak dira oso: 2003 eta 2004an egindako ikerketen arabera, gutxienez 24-28 otso daude 1.500 kilometro koadroko eremu batean. 2000. urtetik hona, lau otso talde daudela ziurtatu dute, den-denak Araban eta Bizkaia: Gibijon, Arkamun, Gorbeian, Salbadan, Enkarterrian eta Gaubean. Zonalde horietan guztietan ohikoak dira artaldeek jasaten dituzten erasoak.



Baina otsoaren jarduerak gatazka sortzen du gaur egun. Izan ere, euren bizimodua eta lanbidea arriskuan ikusten dituzte artzainek, eta otsoak desagertu behar duela aldarrikatzen dute. Otsoa babestearen alde dauden taldeak, berriz, otso-populazioak egoki kudeatzearen aldekoak dira, abeltzaintza eta otsoa bateragarriak direla iritzita.

Modu horretan pentsatzen dute Otso Taldean. Duela sei bat urte sortutako taldea da, eta otsoaren inguruan "egia" esateko helburuarekin jaio zen, Andres Illana kideak azaldu digunez. Otsoa kudeatu beharraren eztabaida sortu nahi dute talde horretan, egun abeltzainek planteatzen duten ezbaia -otsoa ala abeltzaintza- "faltsua" delako: "Otsoa existitzen den munduko toki guztietan abereak daude, kontua da otsoa agertzen denean abeltzaintza ereduak aldatu beharra dagoela, abeltzainek abereak izaten jarrai dezaten eta otsoak bizitzen jarrai dezan". Gauza biak uztartzea posible dela iritzi dio Illanak,

ez dezagun ahaztu otsoa betidanik egon dela euskal herrian eta kontserbatu behar dugula. ez dezagun ahaztu, artzainen ogibidea dela abeltzaintza, eta beraz, haren interesa babestu behar dela

horretarako neurriak jartzen badira, noski. Besteak beste, bi neurri proposatzen ditu Otso taldeko kideak: mastin txakurrak egoki erabiltzea (ongi elikatu eta hezitu) artaldeak otsoaren erasoetatik babesteko, eta otsoaren erasoak areagotzen diren garaietan gauzez abereak gordetzea. Illanak aitortzen du ezinezkoa dela otsoarekin abeltzainek galerarik ez izatea, baina zenbait neurri hartuta, galera horiek "ahalik

eta txikienak" izatea lor daitekeela ziur da.

Abeltzainek, baina, ez dute berdin pentsatzen. Otsoa hiltzea da, euren aburuz, irtenbide bakarra. Javier Aldamak (Abezia) eta Manu Bilbaok (Altube) argi dute "bateraezina" direla otsoa eta abeltzaintza. "Otsoa nahi duenak mantendu dezala, gu ari gara otsoa artaldeekin mantentzen eta!", dio Bilbaok, haserre. Etsituta daude. Artaldeetan pairatzen dituzten kalteak handituz baitihoaz urtetik urte: "Aurten soilik Gorbeian, Bizkaia eta Arabako alde bietan, 150 ardi zauritu, hil edo desagertu dira".

Ez dute irtenbide errazik ikusten. Proposatzen dituzten neurriekin ere ez daude konforme. Mastin txakurrak erabiltzea, esaterako, ez da haientzako soluzio. Izan ere, Gorbeia natur parkean dauden mastinak ez ditu Arabako Foru Aldundiak diruz laguntzen. Horren truke, hildako ardi bakoitzeko %20 gehiago ordaintzen die Aldundiak, baina horrekin ere ez dutela ezer konpontzen dio Juanjo Ortiz de Zarate

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfno.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

 **ERROTA**
HORTZ KLINIKA
Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Argazki - Estudioa
Erramun
Heradio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tnoa: 13 71 02 Tnoa: 26 19 91
01006 01004

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitex !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

Sarriako (Araba) abeltzainak: "Hori ez da irtenbidea, artalderik gabe geratuko garelako azkenean. Diruak ez digu arazoa konponduko, gu artaldetik bizi baikara".

Arabako Aldundiari kritika

Erakundeek otsoa kontrolatzeko martxan dituzten neurriak ere ez dira batzuen zein besteen gustukoak. Arabako Foru Aldundiak diru laguntzak ematen ditu otsoak hildako ardi bakoitzeko eta mastin txakurrak erosteko. Gainera, uxaldiak antolatzen baimenak ematen ditu. Andres Illanak kritikatzeko duenez, Aldundiak atera duen foru arauak ez du otsoaren populazioa kudeatzeko helburua, kontrolatzeko alegia, baizik eta hiltzekoa. "Otsoari ia ehizaldi garai guztian tiro egin dakiok, ia Araba erdian. Hortaz, ez da kudeaketa neurri bat, sarraski neurri bat baizik". Otso Taldeko kidearen aburuz, ezinbestekoa da otsoa egoki kudeatzea: zenbat dauden, zein den bere etorkizuna, eta zein prebentzio neurri hartu behar diren erabaki. Hala ere, Bizkaiko Aldundiarekin alderatuta, Arabako Aldundiko arduradunek zabaltzen duten mezua "eredugarria" dela iritzi dio Illanak, otsoarekin bizitzeko ikasi behar dela aitortzen dutelako.

Juanjo Ortiz de Zarateren kritika oso bestelakoa da. Aldundiko foru araua ez da nahikoa, bere ustetan, motz geratzen delako. Irtenbideak muturrekoa behar duela uste du: "Irtenbidea otsoa hiltzea da, Euskal Herrian otsorik ez egotea,

abeltzaintzarekin bateraezina delako". Otsoa agertu izanak, gainera, erabat aldatu die egunero bizimodua abeltzainei. "Lehen 3-4 egun artaldera joan gabe egon gintezkeen, eta ez zen ezer gertatzen, baina orain goizez, arratsaldez eta gauzez egon behar dugu haiek zaintzen", kexu da Aldama.

Etekinak

Otsoa Euskal Herrian egoteari desabantailak ikusten dizkieten aurrean, etekinak eta onurak atera dakizkiokeela uste dutenak daude. Otsoa Taldean uste dute turismoari begira oso erakargarria izan daitekeela otsoa Euskal Herrian bizitzea. Etorkizunari begira "ikuspegi gutxi" izatea leporatu die Illanak turismotik bizi eta otsoa arazo iturri ikusten dutenei.

Onura eskas ikusten dizkiote, ordea, abeltzainek. Ezkorrak dira etorkizunari begira, gainera. Otsoa desagertzen ez bada, epe laburrean artaldeak desagertuko direla ziur da Aldama. "Horrela ezin dugu jarraitu", dio. Artzainei erreleboa hartuko dieten belaunaldi berrien faltan, "are eta azkarrago" desagertuko dela euren lanbidea iritzi dio Bilbaok.

Agerian denez, arazoak ez du irtenbide samurra. Galdera askoren erantzunak airean daude: Bizi nahi dugu otsoarekin? Edo nahikoa dugu otsoa zenbait tokitan, gugandik urrun, egotea? Elkarrekin bizitzeko, ahaleginak egiteko prest dira batzuk eta



besteak? Ez dezagun ahaztu otsoa betidanik egon dela Euskal Herrian eta kontserbatu behar dugula. Ez dezagun ahaztu, artzainen ogibidea dela abeltzaintza, eta beraz, haren interesa babestu behar dela.



Irakasle, entrenatzaile eta monitoreentzat KIROI MATERIALA EUSKARAZ



- pilates
- yoga
- futbola
- aquagym
- beroketa
- eskubaloia



- rugbia
- saskibaloia
- gimnasia erritmikoa
- gimnasioko ziklismoa
- igeriketara



- judoa
- karatea
- patinajea
- kirol egokitua
- tenisa...



%20 deskontua
bilduma osoarengatik

Anoetako Kirol Etxean - Tel.: 943 458 357
Arrasateko Musakola Kiroldegian - Tel.: 943 771 677
www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz

Debarroko Euskara eta Kirol Zerbitzuek argitaratuta

cd-a

moai

harrobi / 2006 / babelmusik.com / euskadikosoinuak.com

arratiako bailaratik datorren taldea. gorbeiazen magalean haziak, beren tontorretatik ekarritako harriek eraiki dute taldeko izaera. harrobik badu nondik jaso eta zabaldu bere soinu berezia, ingalaterako pop doinuak jantzi nagusiztat harturik, lurraren garrasia islatzen duten hitzek laztantzen dituzte ongi orekatutako koroetan. beren lehen diskoa moai da eta hamaika abesti jasotzen ditu. partaideak: david ibarra (ahotsak); bihotz gorospe (ahotsak); iñaki akesolo (gitarak); ruben caballero (gitarak); iban zugarramurdi (bateria); iñigo telletxea (baxua); satxa soriazu (teklatuak).



liburua

nork bere ozeanoa

xabier etxaniz / erein-2006 / narratiba / 120 orr

"ohea egin gabe aurkitu duzu. ez zaitu harritu, baina. bizitzaren azkenetan dagoenak badu bestelako buruhausterik. emakume bat arduratu omen zen denbora luzez harik eta aitaz nazkatu zen arte. horrek ere ez zaitu harritu. jakin badakizu bakardadeak ozpintzen duela gizona. behin baino gehiagotan ikusi ahal izan duzu. munduan zehar ibili izanak eskaini dizu bakarti ospindu franko ezagutzeko parada. bakardadeak usteltzen du pertsona. aitak ez zuen bete amak ohe hartan utzitako hutsunea. ez dakizu zergatik baina hala izan zen. eta orain badakizu bakardadea ere mundu bat dela. basamortu bat. ozeano bat. eta nork berea dauka.

nork sortu ditu ozeanoak, aita?"



zinea

cristóbal molón

euskal herria-2006 / animaziozko filma / zuz.: iñigo berasategi eta aitor arregi / gidoia: joanes urkixo / musika: pascal gaigne / www.cristobalmolon.com / euskaraz & gaztelaniaz estreinatuta

irusoinek, dibulitoon studiok eta etbk ekoizita, akzioa, umorea eta fantasia dituen film hau 3d-n eta maketak erabilita egin dute.

intsektuen egutegiko 1512. urtean gaude eta euren munduaren zati batean zerbait aldatzen ari da. belarroniako erreinua ez baitago bere momenturik onenean: nahiz eta pinzon i. erregearekin gailurra egin zuten, bere heriotzaren ostean honen semeak, izaerarik gabeko pinzon ii.ak, bere aitarekin komunean izena baino ez duela agerian utzi du eta anbizio biziko bere laguntzaile destruzioak manipulatu egiten duela garbi ulertuko du gure sasierregeak. eta bere botere nahia asetzeko desioarekin destruzioak zera proposatzen du: ilargian errege berriaren aurpegia grabatzera espedizio bat bidali eta horrela guztien arreta desbideratu. baina espaziora igortzen duen bikotea ez da nolanahikoa: ustezko aurkitzaile entzutetsu bat, cristobal molon, eta carabix, eder bezain zakarra den neskatala. beren bizitzako abentura biziko dute biek, non sekula imajinaturiko sekretu zirraragarri bat desegingo duten.



HAN GAN-EN ZALDI MAGIKOA

[txabi arnal gil]

Haurra zenean Han Gan-en zaletasunik handiena marraztea zen. Baina ez zuen pintzelik eta papera erosteko dirurik, bere familia oso txiroa baitzen...

Egun batean Han Gan Wang Wai marrazkilari ospetsuaren etxera joan zen, zaldi eder batzuk ikusi eta marraztu zituen. Wang Wai hurbildu egin zitzaion eta, umeak eginiko lana ikusita, harrituta gelditu zen.

Wang Wei-ren babespean Han Gan-ek marrazten jarraitu zuen, zaldiak marrazten bakarrik, bizi-itxura handieneko zaldiak, hain zuzen ere.

Handik urte batzuetara Han Gan-en marrazteko trebezia Enperadorearen belarrietara heldu zen, horrek Margolari Ofizialen Eskolara sar zedin eskatu ziolarik. Hantxe, margolari handien teknikak ikasteko aukera izan bazuen ere, Han Gan zaldiak marrazten aritu zen, zaldiak soilik, eta lotuta beti.

Zergatik lotuta?, -galdetzen zioten Eskolako gainontzeko marrazkilariak.

Zergatik lotuta? Horra hor zeuek, artikulu hau irakurtzen ari zaretenok, erantzun beharko duzuen galdera. (Han Gan-en Zaldi Magikoa ipuina irakurtzeko gogoia piztu baldin badizuegu). Gure partetik bakarrik esatea Txinatik ekarritako ipuin bikain hau euskaratu izana eskertzen dugula.

Boterearen, gerraren, minaren eta maitasunaren gaineko fabula baten aurrean gaude. Ipuin hunkigarria benetan. Eta gainera zetan eginiko marrazkiek lagunduta.

Zergatik zetan? Hori baitzen, hain zuzen, duela mila eta berrehun urte baino gehiago, Zaldien Margolaria izan zen Han Gan-ek erabiltzen zuen teknika●

HAN GAN-EN ZALDI MAGIKOA.
Chen Jiang Hong. Ttartalo, 2006



RUPER ORDORIKA

*“Kronika, bizitza bateko apunteak
eta belaunaldi baten ikuspuntua”*

disko berria



MEMORIAREN MAPAN

26 urte iragan dira Ruper Ordorikak bere lehenengo diskoa kaleratu zuenetik, Hautsi da Anphora, eta orain Memoriaren Mapan disko berria plazaratu du Elkar diskoetxearekin. Bertan Joseba Sarrionandiak argitaratu gabeko hamaika testuri musika jarri die oñatiarrak, akustikoan, bere gitarra lagun.



[maite lekue]

[arg.: elkar]

'Memoriaren Mapan' akustikoan eginiko disko berria plazaratu berri duzu. Zer aurki dezakegu lan berri honetan?

Hamaika kantu berri, bakarka grabatutakoak, eta denak ere Joseba Sarrionandiaren testuen gainean osatutakoak. Badira musikari handiak gonbidatuak ere eta soinu produkzio berezia.

Ez da lehen aldia Sarrionandiaren hitzei musika jartzen diezula. Oraingo honetan gainera disko osoa betetzeko lain. Zer eragin du Joseba Sarrionandiak Ruper Ordorikarengan?

Ba, eragin zuzena. Sasoi berekoak gara eta adiskide zaharrak, nahiz eta bizitzak bide desberdinetatik eraman. Nik bera asko maite dut eta bere lan literarioa ere bai.

Disko honen aurretik banituen zazpi kantu bere poemekin osatuak. Oraingoak ez dira poema abestutakoak, kantaren esparrura ekarritako testuak baizik.

Sarrionandiaren ondasuna anitza da. Nola eta zergatik hautatu dituzu Memoriaren Mapan musikatutako hitzak?

Musikari askok osatu dituzte kantuak Sarrionandiaren hitzekin. Nire kasuan, bere bi testu 1983.ean grabatu nituen lehenengoz, eta lehenago, 80an jada, kantatzen nituen...

Beti esan ohi dut kantuak hirugarren osagarria behar duela erabat borobiltzeko: nik horri oihartzuna deitzen diot. Hau da, kantua izango litzateke: doinua gehi berba gehi, kasu batzuetan, oihartzun hori. Bada, nigan testu hauek horixe sortzen dute, oihartzuna, halako identifikazio berezia...

Halako batez argi ikusi nuen grabaketa holaxe egin behar nuela: bakarka, ahalik eta gertuen, eta testu hauekin. **Zer kantatzen digute Ruperren abestiek oraingo honetan?**

Hau ez duzu disko tematiko bat, ez eta disko literarioa ere zentzu hertsian. Gaiak asko dira eta desberdinak. Musika aldetik ere zabala da 'Memoriaren Mapan', nahiz eta kantu guztiak ondu ahotsa eta gitarra hutsaren gainean.



Zeintzuk dira Memoriaren Mapan marraztutako koordinatu nagusiak?

Ba, imajina dezagun adibidez: Iparrean, maitasuna; Hegoaldean, belaunaldi baten kronika moduko apunteak;

Urte berria, kontzertu berriak

Ruper Ordorika, Memoriaren Mapan disko berria kaleratu eta abenduaren erdialdetik aurrera kontzertu akustikoak ematen dabil herriz herri, Jon Piris kontrabaxujolea lagun, kantu berriak ardatz. Hauek dira urte berriarekin batera egingo dituzten kontzertuetako data batzuk:

-Urtarrilak 5: Durango

-Urtarrilak 26: Gasteiz, Artiumen

-Urtarrilak 27: Arrasate

-Otsailak 2: Tolosa

Diskografiaz

Ruper Ordorikaren diskografia anitza da, 80. hamarkadan eman baitzituen lehen pausoak. Harrez geroztik, bakarkako hainbat disko, Hiru Truku taldearekin, bere Mugalariekin, eta hainbat kolaboratzaile izan dira bere lanetan presente betiere, Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia eta Joxemari Iturralde, besteak beste.

Hona hemen bere ibilbidean zehar argitaratutakoak:

- hautsi da anphora (1980 xoxoa-elkar)
- ni ez naiz noruegako errege (1983 elkar)
- bihotzerreak (1985 elkar)
- henry bengoa inventarium (1988 elkar)
- ez da posible (1990 gasa-wea)
- bilduma bat (1992 elkar. lehen 3 diskoen hautaketa)
- ruper ordorika&mugalaris (1992 emak bakia)
- hirutruku (r. ordorika, j. tapia, b. martinez) (1994 nuevos medios)
- so'ik'so (1995 nuevos medios)
- hirutruku ii (r. ordorika, j. tapia, b. martinez) (1997 nuevos medios)
- dabilen harria (1998 nuevos medios)
- gaur (zuzenean - en directo) (2000 esan ozenki records)
- hurrengo goizean (2001 metak)
- ruper ordorika (2002 bilduma. nuevos medios)
- kantuak jartzen ditut (2003 metak)
- hiru truku. nafarroako kantu zaharrak (2004 metak)
- memoriaren mapan (2006 elkar)

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**Euskadik
behar zaitu**



Sartaldean, errealitatea eta irrealitatea, jolasa; Sortaldean, erbestea, beti leku baten bila...

18/98+ taldeari atxikimendua emanez ikusi eta entzun zintugun BEC-en. Euskal musikarien konpromisoa Euskal herriaren etorkizunean beharrezkoa al da?

Bai horixe. Musikarien konpromisoa eta guzti-guztiona, eta ez soilik herri honen etorkizunerako... Hori bai, ez da gehiegi izango gogora ekartzea musikariak bere eginkizunarekin duela lehen konpromisoa.

Urtero ikusten dugu Joseba Sarrionandiaren liburu berriren bat Durangoko Azokan. Posible izango al da Josebak berak aurkeztutako libururen bat noizbait eskuratzea?

Baietz uste dut. Eta hori gertatzea nahi nuke, bai, zeren eta horrek esan nahiko luke egoera berri batean ginatekeela, euskaldun jendeak espero duen egoera berrian.

Gaur egun musika kontsumitzeko bideak ugaritu egin dira, Top manta, internet, diskoen kopiaketa...,



kontsumitzeko era hauek zer min eta zer onura ekartzen diote musikariari?

Diskogintzaren egoeraz ezin da berba egin inguruari begiratu barik. Cd-aren krisia erabatekoa da mundu guztian... Hemen oraindik ez da lehertu eta badu osasun minimo hori, baina aldaketa handi baten erdian gaude eta euskal esparru ttikiak beharko du eraldatu eta zuhur jokatu.

Bat-bateko memoria erabiltzen duen gizarte honetan, zer-nolako garrantzia du herri baten memoria historikoak?

Galdera potoloa egiten didazu... Ez dut uste disko honen izenburuko

"memoria" horrek inongo harremanik duenik "errebisio" historikoarekin... Kronika, bizitza bateko apunteak, belaunaldi baten ikuspuntua... horiekin lotuago ikusten dut nik disko hau.

Gasteizera ere Memoriaren Mapan aurkeztera etorriko zara. Noiz eta non izango dugu aukera zure kanta berriak deskubritzeko?

Urtarrilaren 26an izango da Gasteizen lehenengoa, Artium-en. Oraindik ez dut aretoa ezagutzen baina esan didate bildua dela eta egokia emanaldi berri honetarako. Kontrabaxua eta biok izango gara soilik taula gainean.

Elkar diskoetxera bueltatu zara, zure lehenengo pausoak eman zenituen diskoetxera. Disko baten ekoizpenean bizitako esperientzien arabera, zein da gaur egun euskal diskoetxeek duten osasuna?

Diskoetxe aldaketen kontuan uste dut Guinness liburuan egongo naizela dagoeneko... Hainbat aldaketa bizi izan dut eta hau, bat gehiago... Erabateko libertadea eman didate eta pozik naiz. Onerako izan dadila●




APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

ZIRIKA, Arabako Arte Lehiaketaren

Arabako Arte Lehiaketaren 56. edizioak jada bere irabazleak aukeratu ditu. Miguel Alfredo Hernandez gasteiztarak -Zirika izenaz ezagutua- lehenengo saria eskuratu du, protagonista nagusi gisa soka duen **'Naturarekin solasean'** lanarekin.



[saioa fdz de arangiz]

[arg.: edorta sanz]

Soledad Calzada eta Nerea Lekuonaren (Menosmegas) 'Fruturama' obra, aldiz, bigarrena izan da, non kolorez beteriko eta fruituez osatutako irudiak aurkeztu dituzten.

Azkenik, hirugarren saria Fernando Gil Ciden 'Electric Street' koadroak lortu du; bertan, edozein hiri handitako gaueko ikuspegia suma daiteke.

GEU irabazle suertatu den artistarekin mintzatu da. Hauxe da "Zirikarekin solasean".

irabazlea

“Naturarekin solasean egiteko aitzakia da soka”

Sari bat eskuratzea beti pozgarria da, baina kasu honetan zer ekarri dizu Arabako Arte Lehiaketa irabazi izanak?

Bai, poztasun izugarria izan da niretzat. Espero dut oihartzuna izatea eta horri esker, artista gisa nire lana ezagutzera ematea Gasteizen.

Argazkiez osatutako ‘Naturarekin solasean’ obrarekin irabazi duzu saria, honen elementu nagusia soka bat izaki. Zertan datza lana?

Obra gauzatzeko aitzakia gisa, soka bat aukeratu nuen eta berea da protagonismo guztia. Guztira 10 argazki dira eta hauetan guztietan soka Lekeitio inguruko leku desberdinetan ikus daiteke, hala nola, Lekeitio kale batean, zelai batean, itsasertzean, eta abar. Obraren erdian, argazkiekin batera, protagonista den soka bera ikusgai dago koadro batean.

Naturarekin solasean egiteko aitzakia da soka, hau da, printzipioz ezer gutxi duten leku ezezagunak ezagutzeko eta hauekin solasean hasteko aukera ematen du. Azken finean, txoko hauek berraurkitzen ditut nire obran.

Zergatik soka elementu bezala?

Egia esan, ez dakit nik soka aukeratu dudana, hala berak ni! Aspaldi hasi zen sokarekin dudana harremana. Beti ikertzen eta aztertzen duen artista naiz eta aspaldi oihalekin lan egiten hasi nintzen; oihalak sokekin markoetara lotzen nituen eta geroztik, sokarekin maitasun-gorrito harreman antzekoa daukat. Askotan elementuz aldatzea pentsatu dut

baina egia esanda, plastikoki adierazteko jokoa ematen didan tresna ona dela uste dut.

Horrez gain, soka edozertaz hitz egiten duen elementua da, hots, sokarekin gauza anitz sor daitezke, baita gauza asko suntsitu ere; sokarekin jolas daiteke, baina baita pertsona bat hil ere. Hortaz, aukera asko ematen ditu.

Azkenik, ‘Naturarekin solasean’ obrak bere alde aldarrikatzailea ere badu. Egungo gizartearen abiaduraren aurrean, sokaren moteltasuna aldarrikatzen du. Hau da, lekuetara ahalik eta azkarren heltzeko aukeratzen ditugun bide laburren aurrean, patxadaz bide luzeak aukeratzeko gonbidapena luzatzen dut.

‘Naturarekin solasean’ dugu zure proiektu berriaren abiapuntua. Zein da hurrengo urratsa eta etorkizunerako asmoak?

Sokaren proiektua gauzatzen eta antolatzen nago memento honetan. Irabazi berri dudana sari honek datorren urtean Luis de Ajuria aretoan, lehiaketaren beste bi irabazleekin batera, nire lana erakusteko aukera eman dit, beraz, horretan nago, betiere, sokaren ildoari jarraituz.

Oraingoan argazkia izan da adierazteko erabili duzun tresna, baina zu berez pintorea, eskultorea, komikigilea zara. Nolako izan da zure ibilbidea?

Autodidakta naizela esango nuke. 15 urterekin hasi nintzen margotzen, baita ikasteko banuela konturatu ere, eta Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan klaseak hartu

nituen 5 urtez. Geroztik, nire kabuz ikasi eta ikertzen aritu naiz, margotzen eta eskulturak egiten. Horrez gain, 9 urtez EGIN egunkarirako bineta egin nuen eta pixkanaka nire lanak erakusten hasi nintzen. Nik beti esan ohi dut nik obra kontrolatu beharrean, berak ni kontrolatzen nauela. Horrela, askotan nire obra bateko xehetasun txiki bat, hurrengo lanaren protagonista bilaka daiteke. Beraz, ikertzea eta bide berriak zabaltzea dut gustuko. Oraingo kasuan, esaterako, argazkigintza nuen gustuko eta horrekin hasi nintzen esperimentatzen.

Posible al da Gasteizen arteari esker bizitzea?

Egia esan, oso zaila da. Nik, esaterako, ezin dut, lorazaina naiz. **Gasteizko artistek erraza al duzue hirian bertan zuen lana ezagutaraztea?**

Gaur egun, gure obrak erakustea gero eta errazagoa dela esango nuke. Adibidez, egun Arte eta Lanbide Eskolak arlo honi bultzada handia eman dio, batez ere, eskolan bertan zabaldu dituen erakusketa-txokoei esker. Hala ere, nik uste dut ni bezalako pertsonentzat zailagoa dela, hau da, ez profesional ez hasberriak garenontzat. Erdibideko gauza falta da. Ez dugu Artiumen erakusketa bat egin nahi, baina ezta kafetegi txiki batean ere. Amarica aretoa bezalako gelak falta dira, esaterako. Are gehiago, bertako artea bultzatzea falta da, antza denez, artea beti kanpotik etorri behar den uste txarra nahiko zabaldua dagoelako●



ZAHARBERRITZE LANAK

Gasteizko Alde Zaharrerako onartu berri den zaharberritze egitasmoak ez ditu pozik utzi auzokide elkarteak. AntiPeri, AZAO eta Gasteiz Txiki ekimenek bizilagunen iritzia entzun nahi ez izana salatu dute

[anakoz amenabar]

[arg.: edorta sanz]

PERI

Joan den irailean Alde Zaharreko Zaharberritze Osorako Plan Berezia (PERI) onartu zuen Gasteizko Udalak PP, PSE-EE eta EAJren babesari esker. EAK eta EBK, ordea, kontra bozkatu zuten.

1988an abian jarritako egitasmoa oinarri, auzoaren berpizte ekonomikoa eta sarbide birmoldaketa ditu lehentasun, gizarte ekipamendu batzuk eta hainbat eraikinen zaharberritzearekin batera. Landatxoko lurrazpiko aparkalekuak emango dio hasiera egitasmoari, zortzi urtetan 115,9 milioi euroko aurrekontua izango duen planari.

Guztira, 42 hirigintza ekimen burutu nahi ditu Udalak egitasmoa amaitzerako. Aipagarrien artean daude Gasteizko muinora heltzeko igogailuak, merkataritza gunek berriak irekitzeko 24 metro bitartean fatxadak elkartzeko baimena eta kirol eta kultura ekipamendu berriak. EAJk eta PSE-EEK eskatu moduan, fase ezberdinetan osatuko da alde historikoko birmoldaketa.

Planak Udaleko alderdien gehiengoaren oniritzia izan badu ere, Alde Zaharreko auzokide talde zabalak ez du begi onez ikusten hartu diren erabakiak. Tartean, Gazte-txea erauzteko erabakia gaitzetsi dute herritarrek.



AUZOKIDEEN BURUHAUSTE

ANTI-PERI

Gasteizko Udalaren zaharberritze egitasmoaz informatu eta geldiarazteko helburuaz sortu zen Anti-PERI ekimena joan den urriaren 30ean. Proiektuak alor soziala erabat alde batera utzi duela salatu du ekimeneko partaide Antonio Esca-lantek.

PERIaren lehentasun nagusia Alde Zaharrerako sarbideena dela eta, arazoak konpondu gabe jarraituko duela adierazi du Escalantek. "Jaur-laritzaren txosten batek erakutsi moduan, sarbideen aferra ez dute malda mekanikoek konponduko". Txosten teknikoek diotenaren arabera, %10eko malda igoera, pasillo estuek eta sarrerak urrun izateak arazoak ekarriko dizkie pertsona ezindu eta adinekoei. "Jendeak ez daki malda mekanikoak ez direla auzokideen beharrei erantzuteko jarri, baizik eta Artiumetik Landa-txoko muinorano turistentzako bidea errazteko, non merkatal gunea eta aparkalekua egingo diren", adierazi du Almudena Perez Anti-PERI ko kideak.

Bestalde, zaharberritzeko beharra duten etxebizitzaren %67 planetik kanpo geratuko direla nabarmendu dute. Egitasmoak Alde Zaharrean enpresa pribatuei lehentasuna eman eta turistentzat erakargarri izatea nahi dutela aipatu dute. "Ezarri nahi dituzten dendak ere eztabaidagai dira. Tailerrak, bokate-riak, lokutorioak edota te gelak debekatu dituzte, eta elite merkataritza hobestu dute, ordea", nabarmendu du Escalantek.

AZAO

Alde Zaharraren Aldeko Oihua (AZAO) Gasteizko Udalaren PERIari aurre egiteko bertako auzo elkarte, gizarte talde eta bizilagunek sortu-tako herri ekimena da. Besteak beste, SOS Arrazakeriak, Gasteizko Gazte Asanblada, Hemen eta Munduan, Saregune eta AHTren Aurkako Taldea dira elkarlanean.

Auzorako plan baten beharraz ohartuta, "bulegoetatik diseinatu dutena" onartuko ez dutela iragarri dute plataformako kideek. "Izan ere, auzoko biztanleei bizkar emanda diseinatu dute eta ez ditu aintzat hartzen auzoak dituen beharrian sozialak", nabarmendu du platafor-mako kide Jabi Agillok.

AZAO osatzen duten elkarte eta taldeek PERI planari buruzko hiru puntu adostu dituzte. Batetik, PERIa diseinatu dutenek bertako biztan-leen iritzia jaso gabe egin dutela gogoratzen dute. Bestetik, egitas-moaren inguruan emandako argibideak urriak eta ilunak izan dira, kideen arabera. Eta, azkenik, PERIak Alde Zaharrak dituen arazo sozial larriei aurre egiteko inolako politikarik eta diru partidarik hartzen ez duela azpimarratu dute. "Auzoaren zaharberritzea ahaztu dute eta hirigintzarekin zerikusia duen alorra lehenetsi dute", adierazi du Agillok. Hala, zortzi urtetarako aurreikusitako 115 milioi euroak auzokideen beharrian bainoago, elite turismoari zuzenduta daudela salatu dute. "Honen aurrean auzokideek erantzun behar dute, egitas-moak aurrera eramango badituzte ere".

GASTEIZ TXIKI

Alde Zaharreko auzokide elkartearen ustez, Udalaren egitasmoak "gabezia ugari" ditu eta "neurri sozialak kanpo" utzi ditu. "Trafikoa moduko gaietan arazo larriak ditu auzoak, eta halakoen inguruan ez da ezer aipatzen ekimenean", salatu du elkarteko presidente Iñaki Nuñok.

Era berean, auzokideen iritzia ezagutzeko helburuarekin, urtarrila hasieran galdeketa abian jarriko dutela aipatu du Nuñok. Erreferendumearekin batera mobilizazio desberdinak egingo dituztela iragarri du. "Ez dituzte auzokideen behar eta nahiak kontuan izan eki-men hau idatzi dutenek, eta gainera, informazio eza izan da nagusi".

Irailaren 27an onartu zuen PERIa Udalak, hain zuzen, Alde Zaharreko auzokideek euren kezka eta beharrianak jasotzen zituen txostena aurkeztu baino egun bat lehenago. "Udalak zaharberritzea abian jartzean ez du turistengan bakarrik pentsatu behar, eta hori gertatu zaio Gaztetxea edota malda mekanikoen proiektuekin", adierazi du elkarteko kide Iñaki Lazkanok.

fontaneda.net EUSKARAREN

Gontzal Fontaneda gasteiztarak euskararen inguruko webgune berria abian jarri du. Bertan, euskara irakasle lege, hainbat urtetan garatu dituen bi metodo plazaratzen ditu; batetik, euskararen egitura muinetik aztertzeke idazlana eta bestetik, hitanoa mintzatzen irakasteko metodoa. Gainera, erakunde publikoek egiten dituzten euskarazko hainbat akats ere biltzen ditu, Astakeriak izeneko atalean.

[saioa fdz de arangiz]

[arg.: edorta sanz]

Gaur egungo mundu mailako sare famatuena den Internetek euskararen inguruko txoko berri eta interesgarria jarri du euskaltzaleen esku, www.fontaneda.net webgunea, hain zuzen. Egilea, Gontzal Fontaneda gasteiztarra dugu. 1943. urtean jaioa, banku langilea izan da, baina aspaldi aritu da euskararen munduan; izan ere, 1958an euskara ikasten hasi eta 1967an irakasle bilakatu zen, hurrengo urteetan Euskaltzaindiaren D eta B mailako euskal irakasle titulua lortu zituelarik. Gauzak horrela, eta irakasle izanda, paperetan jartzeko bi ideia zituen Gontzalek; batetik, euskararen egitura euskararen muinetik aztertzeke lana gauzatu eta bestetik, hika mintzatzen irakasteko metodo bat sortu. Bi ideia hauekin Gontzalek Fontaneda webgunea eratu du. Dena den, familiaren laguntza ere funtsezkoa izan dela aitortzen du Gontzalek: "Beñat nire semea benetako sustatzailea izan da, berak bultzatu ninduen interneteko proiektua gauzatzera. HTML ikastaro bat egin nuen, baina jakina, andreak eta seme-alabek, baita kanpoko jendeak ere, laguntza eman didate, adibidez, HTML

oinarriak irakatsiz, diseinua egiten lagunduz eta aholkuak emanez".


Webgunean hiru atal bereizten dira: Azterpidea, Hitanoa eta Astakeriak.

Azterpidea, helburu nagusia

Gontzalen hitzetan, hau da "webgunearen arrazoia, oinarria eta helburu nagusia". Bertan, berak 2001ean bukatutako idazlana agertzen da. "Euskal gramatika aztertzeke ikuspegi berri bat da. Orain arte euskarari erdal arauak ezarri dizkiote, beste hizkuntzen egitura jarri diote nekez. Horregatik euskara horren zaila omen da. Nik beste ikuspegi bat aurkeztu nahi dut: euskararen muina aztertzea, zein arau daukan eta sintaxia nola egiten duen", azaldu du.

Adibide bezala, bi hauek aipatzen ditu; euskarak subjekturik ez duela eta euskararen aditzak deklinatzen direla.

Izan ere, Azterpidea idazlana interneten agertu arte, asko izan dira emandako urratsak, bere hastapenak 1971n kokatzen baitira. Garai hartan, Gontzal Gasteizko euskal irakas-talde handi bateko kide zen eta 1976an euren ikasliburua argitaratzeko erabakia hartu zuten. Liburu honetan jada Fontanedaren oraingo Azterpidea idazlanaren metodologia agertu zen eta



ikasleei zuzenduta zegoen. Oraingo Azterpidea, berriz, hizkuntzalariei eta irakasleei zabaldutako proposamena da. "Hau da nire asmo eta interes bakarra", diosku Gontzalek.

2001ean idazlana amaitu eta lehen urratsa, Euskaltzaindiari aurkeztea izan zen. Ikerketa eta eztabaida lanen aberasgarri izan dadin, erabiltzaile izan daitezkeen ikasle eta irakasleen esku utzi behar zuela esan zion erakundeak. "Horregatik, eta gaur egungo teknologia berrien garaian liburutegirik zabalena, errazena, erabiliarena eta merkeena Internet denez gero, Azterpidea sarean jartzea erabaki dut, edozein ikasle eta irakasle irakurri eta

txoko berria SAREAN



deskargatu ahal izateko", adierazi du.

Gainera, Fontaneda webgunean irakurleen iritzi eta usteek ere badute lekua. "Idazlana bukatu ostean, kritikarik, iradokizunik edo galderarik jasoz gero, testua zuzendu eta aldatu ahal dut, gaurkotuta edukitzeko asmoz", argitzen du, irakurleek parte har dezaten animatu nahian.

Bestelako atalak

Horrez gain, Gontzalek sortutako webgune honek beste bi atal ere aurkeztzen ditu. Batetik, hika mintzatzen irakasteko metodoa Hitanoa atalean agertzen da. "Gaur egun, hitanoa oso leku gutxitan ikasten da eta hitanoari buruz oso liburu gutxi dago. Beraz,

hutsune hori betetzeko asmoz egin nuen idazlan hau, euskaldun guztiek hika egiten goitik behera ikasi ahal izateko", azaltzen du Gontzalek. Metodo hau 2005ean bukatu bazuen ere, Gontzalek dio "egun argitaletxe batek argitaratzeko asmoa agertu duenez, honen zain nago eta oraindik ezin izan dut web orrialdean jarri".

Azkenik, eta webgune honi umore eman nahian, Astakeriak atala dago ikusgai. Bertan, erakunde publikoek egiten dituzten euskarazko akats ikaragarriak (astakeriak) salatzen dira. Atal honetan ere, internauten parte-hartzea eskatzen du egileak●

ASTAKERIAK



MINISTERIO
DEL INTERIOR

DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO
JEFATURA DE TRÁFICO

AUTORIZACIÓN TEMPORAL PARA CONDUCIR

AUTORIZACIÓ TEMPORAL PER CONDUIR / AUTOTZACIÓ TEMPORAL PER A CONDUIR
AUTORIZACIÓN TEMPORAL PARA CONDUCIR / ALDI BATERAKO GIDATZEKO BAIMENA

VÁLIDA PARA CONDUCIR POR ESPAÑA SI VA ACOMPAÑADA
DE UN DOCUMENTO OFICIAL DE IDENTIFICACIÓN

VÁLIDA PER CONDUIR PER ESPANYA SI ACOMPANYA D'UN DOCUMENT OFICIAL D'IDENTIFICACIÓ
VÁLIDA PER A CONDUIR PER ESPANYA SI VA ACOMPANYADA D'UN DOCUMENT OFICIAL
D'IDENTIFICACIÓ / VÁLIDA PARA CONDUCIR POR ESPAÑA SI VA ACOMPANADA DE
DOCUMENTO OFICIAL DE IDENTIFICACIÓN / BAILIO BALIO DU GIDATZEKO BAIMEN BALIOGARRIA
IZATEKO IDENTIFIKAZIO AGIRIREN

1. ADIBIDEA

ASTAKERIARIK ASTOENA

"BAILIO BALIO DU GIDATZEKO BAIMEN BALIOGARRIA IZATEKO IDENTIFIKAZIO AGIRIREN"

Zer esan nahi ote du mordoilo honek?

Gidabaimenerako azterketak gaintzen zenituenean, Espainiako Trafiko Zuzendaritza Nagusiak duela gutxi arte honelako hieroglifiko bat ematen zizun.

Arazoa ez da akatsik edukitzea,... ez da euskaraz! Azkenean, erreklamazio bat aurkeztu ondoren, testua aldatu dute.



2. ADIBIDEA

ARABAKO ZER?!

"MENDIALDEA ARABAKO"

Gasteizen, Arabako Biltzar Nagusien egoitzako aurrealdean Arabako zazpi taldeen armariak agertzen dira; hona hemen Arabako Mendialdea taldearena. Edonork daki alderantziz idatzita dagoela.

Eskerrak azkenean (eztabaida eta guzti) aldatu duten.

IRUÑA-VELEIA.

ZAIN

[kike fdz. de pinedo. filologoa]

[arg.: edorta sanz]

Ez dugu gauza berririk esango artikulu honetan. Azken *ostraken* aurkezpen ofiziala egin arte ez dut uste espekulazio gehiegi egitea merezi duenik. Halere, gaiak sortzen duen jakinmina kontuan izanda azken asteetako ika-mika eta berrien jarraipena egingo dugu jarraian. Eliseo Gilek aldizkari honi emandako azken elkarrizketan, azaroaren bukaeran, euskarazko idazkunak eta oro har, 2. multzo epigrafikoa aurkezteko prentsaurreko bat egingo zutela aurreratu zigun. Prentsaurrekoa eman, eman zuten baina ez espero zena kontatzeko. Izan ere, aurreko egunetan Correo egunkarian ikerketa taldekoa zen J. Gorrotxategik lehenengo, eta aurrekoa bezala EHUKo katedradunak diren J. Lakarrak eta Larreak jarraian, euren duda-mudak adierazi zituzten, eta ildo berean kokatu behar da abenduaren erdialdeko Pello Salabururen idazkia.

Filologoak zalantzak

Esan bezala, aurrena Gorrotxategiren idazkia etorri zen, ustekabea etorri ere, ordura arte behintzat, ikerketa taldeko partaide baitzen. Hasteko zuhurtzia eta azterketak sakontzea eskatzen zuen; agertutako euskal hitz guztien katalogoa, identifikazioa eta sailkapena oraindik osatu gabe egoteaz kezkatzen zen era berean. Gero aurkikuntzak egiaztatuz gero sekulako iraultza akademikoa-ekarriko dutela aitortzearekin batera, bere harridura eta dudak agertu zituen, nagusiki orain arte aurkitutakoa ez datorrelako bat espero zitekeenarekin. Bere galdera eta zalantzak hauexek ziren: udan euskal testu gehiago aurkitu izanak hirian euskaraz idaztea zabaldua zegoela adieraziko luke eta



fenomeno hau ez da batere erraz ematen; Veleian agertu bada, zergatik ez Akitaniako hiriburuan, St. Bertrando de Commingesen, non idazkuntza errotua baitzegoen?; zergatik ez zen ezer idatzi hurrengo mendeetan?; agertutako hitzak gutxi aldatu dira gaur arte, edozein ulertzeko modukoak dira, eta hizkuntza gehiago aldatzea espero zuten; "ta" edo "zutan" bezalako formak baino gehiago "eta" edo "zuga" espero zitezkeen. Zalantza filologiko hauen gain, irakasle egipziarraren hipotesia edo, esaterako, *Mirian* eta *loshe* izenen grafia harridura sortzen zion. Finean, idazkunak benetakoak ote ziren zalantzan jartzen zuen; honela bukatzen zuen hurrengo eguneko elkarrizketa egunkari berean:

"nire ustez aukera guztiak irekita daude, benetakoak direla ere bai".

Bestalde, Joseba Lakarrak eta Juan Jose Larreak hurrengo egunean antzeko mezua eman zuten beste artikulu batean. Beste gauzen artean, orain arte aurkitutako ikonografia kristauak (kalbarioa...), eta hieroglifikoek sortzen duten harridura eta txundiduraz aritu ziren. Eta euskal testuei helduta, harrigarria jotzen zuten forma batzuk agertu izana hizkuntz bilakaeraren logikarekin bat ez omen baitatoz. Adibide moduan, *lankoa* eta artikularen agerpena ematen zuten, esanez: "zaila da begiak ez igurtzea honen aurrean" (adibide hau, ordea, ez omen da agertzen grafitoetan, prentsaurrekoan

argitu zuten bezala). Artikulua "laga diezaiegun arkeologoei euren lana egiten" esaldiarekin bukatzen zuten.

Iruña-Veleiako ikerkuntza-taldekoen komunikatua

Prentsan agertutako artikuluei erantzun nahian Iruña Okako udal aretoan pren-



filologoen zalantzak

adibide moduan, lankoa eta artikulua agerpena ematen zuten, esanez: "zaila da begiak ez igurtzea honen aurrean" (adibide hau, ordea, ez omen da agertzen grafitoetan, prentsaurrekoan argitu zuten bezala)

tsaurreko bat eman zuten Iruña-Veleiako ikerkuntza taldeko kide eta lankideek. Aurpegi serio eta ezinegona erakutsi zuten mahaiaren atzean eseri zirenek. Hauexek: Eliseo Gil, Idoia Filloy (indusketen zuzendarikidea eta zuzendariordea), Juan Santos Yanguas (EHUko katedraduna), Ruben Cerdan (fisikari nuklearra), Emilio Illarregi (arkeologoa) eta Zoilo Calleja (Elizbarrutiko ondare-arduraduna). Haez gain, bertan irakurri zuten komunikatua Henrike Knörr-ek ere sinatua zen. Komunikatuan agerpen ofizial horren arrazoi nagusia adierazi zuten aurrena: "Gutziz arduragabeak, eta gutxi dokumentatuak dira azken aldian -ez dakigu zer helbururekin- prentsan argitaratu diren zenbait iritzi eta artikulua. Harrigarria bada ere, 'iritzi-egoera' interesatu bat elikatu nahi dutela dirudi, Iruña-Veleiako multzo arkeologikoan egin diren aurrikuntzen baliozkotasuna ezbaian jartzeko eta haien benetakotasunaren inguruan zalantza-arrastoa uzteko edo". Prentsaurreko berean, argi utzi nahi izan zuten, grafito gehienak III. mendeko lur geruzetan aurkitu direla, nahiz eta V. mende arterainokoak ere egon daitezkeen, eta honen gainean dagoen beste geruza, erromatarren garaikoa ere badela.

Analisiak

Aurrekoa ziurtatu ahal izan dute, batetik, ebidentzia arkeologikoak eta lur geruzaren ezaugarriak kontuan izanda (lurraren ezaugarrietatik informazio ugari ateratzen da egungo arkeologian, CSI modukoa da ulertzeko); bestetik, C-14 analisiak (AEB eta Herbehereetan eginikoak), geruza horren material organikoaren datazioa ahalbidetu du, eta Polonian egindako Termolumineszentzia frogak, zeramika eta adreiluak noiz egosi ziren zehaztu ahal izan dute. Lur geruzaren datazioan ez dute dudarik. Baina kazetari batek galdetu zuen bezala, baten batek pentsa dezake: bale, geruza III. mendekoa izango da, baina indusketan bertan zeramika pusken gainean arkeologo batek erromatarren garaiko iltze bat hartu eta inskripzioak egitea zeukan. Bada honetan ziurtasuna izateko, Parisko CEA-CNRSeko

Nobedadeak

Prentsaurrekoan eta gerora emandako elkarrizketan nobedaderen bat jakin ahal izan dugu, halere. Adibidez, euskal grafitoak ez direla esku bakar batek eginak; 10-12 leku desberdinetan aurkitu direla euskal hitzak; Knörr-en arabera, euskarazko 100 hitz baino gehiago eta 70 esaldi labur aurkitu dira dagoeneko, eta antza, aditzen bat ere badago. Hitzaldi batean beste hitz berriren bat ere eman omen zuen: MARCUS LAGUN eta besteren bat. Baina hitz batzuekin eman den dantza ikusita eta hanka ez sartzearren hobe izango dugu aurkezpen ofiziala arte itxoitea.

laborategian espektroskopia nuklearreko laborategietan eta Zamudiokoetan grafitoen platinak aztertu dira. Ruben Cedranek azaldu zuenez, gaur egungo atmosferan usuzkoak diren elementuak (100 inguru) agertzen diren ala ez analizatu da, bereziki 210 beruna eta 137 zesioa, eta elementu hauek ez daude grafitoetan, hortaz ez dira gaur egungoak. Eta denborak bakarrik sor dezakeen garapen kimikoa badute, gainera. "Hori ez dago laborategian sortzerik, hau da, ezin da faltsutu". Ondorioz, lur geruzan lurperatu zirenerako grafitoak eginda zeudela baieztatu ahal izan dute. Hau argitu eta gero, agertu diren kezken inguruan minduta ageri ziren:

"Profesionalen lana zalantzan jarri dute, eta eztabaida horiek taldearen barruan egin behar izan genituen". Eta gaineratu zuten, "Euskal arkeologian, lehendabiziko aldiz, zalantzan jarri dituzte metodoa eta analitikak, eta baita arkeologoen ohorea ere, eta hori oso larria da, aurrikuntzak urte askotako ikerketen ondorio direlako". Bukatzeko diziplinen arteko lankidetzak bultzatu behar zela gaineratu zuten baina mezu garbiarekin: apriorismorik ez, "ezin da errealitatea aldeztu aurretiko iritzietan txertatu, iritzi horiek erosoak, onartuak eta ondo ezarriak izanik ere. Errealitatea onartu behar da, eta heldutasuna behar da"●

bizibidaia.net



bizikletaz bidaiatzea garraio edo aisialdia baino gehiago da, guztiaz gain ilusioa da

EUSKAL HERRIA BIZIKLETAZ

(aurki argitaratuko da gida-liburua)




Euskal Herriko irudi anitza ematen saiatzen gara, horretarako ibilbidean, besteak beste, aurkituko ditugu: 7 lurraldeak eta 7 kapitalak, Zuberoako baserri-girokoen tokiak eta Nerbioiko ezkeraldeko hiri-girokoenak, Urumeako hezetasuna eta Bardeetako idorra, Isturitzeko antzinatasuna eta Kursaal-eko modernitatea, Arabako Lautadako ordokia eta Pirineoko maldetako gertutasuna, kostaldeko kresal usaina eta lehorrekoaren zerealarena, Gernikako zuhaitzaren euskal ikurra eta Guggenheimaren nazioarteko onespena.

Etapek batez beste 39,3 km-ko luzera eta 749 m-ko igoera dute. Guztira 1.178,9 km luzeran eta 22.461 m igoeran. Gure luraren orografia kontuan harturik, fisikoki edo teknikoki gogorrenak diren bideak kentzen saiatu gara. Horregatik, zorroetan zama astuna eramanda ere, ia bidaia osoa bide erosoetatik egiten da. Helburu hori betetzeko asmoz, bide-gorri, zirga-bide eta bide berdeetatik doa ibilbidea.

Ibilbidearen %99 bizikletaz egin daiteke eta %81 trafikoa oztopatzen ez duen tokietatik doa.

Eta bukaerak aterpetxe edota kanpina duten herrietan dira.

bizibidaia@bizibidaia.net



ERREZETA

MONDEJUAK

[sukaldeon.org]

> OSAGAIAK:

1 kg. ardi/arkume gantza
12 arrautza
4 tipul handi
8 porru handi
cayena piperra
perrexila
ardi hestea.



Prestakuntza

Ardi gantza zatitan ebaki eta su motelean urtzen utzi. Porruak eta tipula txiki-txiki moztu eta ardi gantzara gehitu; lapikoan eduki su motelean egosten ordu erdiz edo. Lapikoa sutatik atera eta epeltzen utzi (hoztu gabe), arrautzak bertara banan-banan bota eta eskuz dena ongi nahasi, piper aleak eta perrexila (gutxi) txiki-txiki moztu eta aurrekoarekin nahastu.

Ardi hestea 50 cm-ko luzeran moztu, alde bat lotu eta bestetik bete, inbutua erabiliaz, lapikoan eginikoarekin (gehiagi bete gabe) eta beste aldea lotu.

Ur berotan egosi, su motelean, irakitera eramán gabe.





[MUNDINA]

margotu eta koloreztatzen du.
tradizioa 1970etik.



HISTORIAZUTABEA

Araba baino aberatsagorik...

[erlantz urtasun antzano. historialaria]



Arabako historia aberatsa da gero. Izan ere, Euskal Herriak denetarik duela aipatu ohi da, bai kostaldea Bizkaitik Baionaraino, muinoz beteriko ibarrak kantauriar isurialdean, mendialde alpinoa Auñamendian, lautada kontinental petralak erdialdean, mediterranear kutsu ederra Ebrorantz eta, zergatik ez, basamortua eta guzi Bardena partean.

Are gehiago, maiz idatzi da muga naturalaz inguratutik dela Euskal Herria, Landak, Goi Aragoi, Gaztelako mugarriak medio... Haatik, historiak frogatzen du duela 2.000 urteko Euskal Herria egungoa baino hagitzez handiagoa zela, berantago historia krudelak eraikiriko frontierak gaintutuz Bordele, Andorra edota Burgos arte. Zer erranik ez, jakina, Iruña-Veleiakoa eta gero...

Horrela, Bardenak, Landak, Errioxa eta bertze ez dira mugak, historiak utziriko abaguneak baizik, eta tristea da, bai horixe, euskaldunok geure burua gutitzea eta hain esparru politak arrotzen gisa senditzea, bertzelako egoera batean, nork daki, etorkizunean agian, han-hemenka ikastolak sortuko baitira "Zazpiak Bat" ospetsutik haratago.

Edonola ere, tartean, etxe barruan nahiko lan. Eta erranikoak Euskal Herrirako balio ez badu, bai baliogarria Nafarroa Garaiarako, a zer-nolako aldaketa bidaia hau egitekotan: Lesaka, Iruña, Lizarra, Biana. Eta handik Oionen sartu, kar-kar.

Baina eta hemen, Nafarroa Garaia handia da, eta gure Araba tiki-tikia. Horregatik diot, hagitzez "meritu" handiagoa duela, era berean historian barna pairatu duena pairaturik, Arabako edozein tokitan euskaraz entzun ahal izateak. Badakizue, Oiondik Urizaharraraino, handik Uda-Trebiñu zeharkatu, Gasteiz, Legutio, Aramaio.

Nabarratik berderat, Araba baino aberatsagorik... Horregatik hainbertze gustatzen zitzaidan, tiki-tikitan, Gorka Knörr abeslariari aditzen nizkion horiek: "Larraitzarreko zelaietan, eperrak ziren kantatzen... Noiz altxatuko haiz, Gebara, noiz altxatuko haiz... Irabazteko".

"ARABAKO HERRI IZENAK ALDATU DIRA HISTORIAN ZEHAR?" (X)

"Orbiso" ezagutzen duzue? Ni kilikatzen nau, zinez. Eta barneko hori handitu nuen "Urbixo" irakurtzerakoan 1257ko erreferentzia hartan. Badakizue XVIII. mende bitarte "Urbiso" moduan idatzi zutela eskribauek? Hori, edo "Orbisu", jakina.

Eni gertatu egin zait, batzuetan behintzat, "Ordoñana" aditu eta zerbait noblea, sendoa, dotorea, osoa, izen handikoa, hamaika irudi tropelka buruan nagusitu. Ez dakit horrela ote den, auskalo. Dena den, ziurtat hartzen ahal duguna da 1025. urtean "Erdongana" idatzi zutela, eta oraindik XVII. mendean "Herdoñana" bat kausituko duela ikerlari kuriosoak.

Hor dugu "Sanchez de Herdoñana", edota "Herdonana" aipamena ere, "Erdñana" aldaera hainbatetan agertzeko. Zer nahi duzue, eni oraindik pelikuletakoa iruditzen zait...



txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es



korrika

2007ari gogotsu heldu

aek k urte berri korrikalaria opa dizue!

ezker independentea



aralar

ERAIKI DEZAGUN
GUZION ARTEAN
2007 EZKERTIAR
ETA
ABERTZALE BAT

ezker independentista

www.aralar.net

araba@aralar.net

945 252631

ZENTRO

BERRIA

ZENTROAN

bai & by

GASTEIZKO ZENTRUAN bai & by ZENTRU BERRI BAT

ADIMENDUN SISTEMA BAKARRA · INGELESA & EUSKARA DIRUZ LAGUNDUAK
ZERBITZU BERRIAK: INTERNET 24 ORDUZ · ON LINE AHO-KULARITZA · TELEFONO-ESKOLAK...

bai & by -ko IKASLEA BAZARA, INFORMA ZAITEZ ZENTRO BERRIAN,

...ETA ORAINDIK EZ BAZARA, ZEREN ZAIN ZAUDE??? 945 15 71 10. K/ ADRIANO VI, 12. GASTEIZ

Fundación Sánchez del Sábido Fundazioa

GEU

geugasteiz.com

[1992-2007]

5

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

geu

GEU

Urtarrila

Al	Ar	Az	Og	Or	Ir	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Otsaila

Al	Ar	Az	Og	Or	Ir	Ig
29	30	31	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28				

Martxoa

Al	Ar	Az	Og	Or	Ir	Ig
28	29	30	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Apirila

Al	Ar	Az	Og	Or	Ir	Ig
26	27	28	29	30	31	1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29

Maiatza

Al	Ar	Az	Og	Or	Ir	Ig
29	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Ekaina

Al	Ar	Az	Og	Or	Ir	Ig
28	29	30	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

Uztaila

Al	Ar	Az	Og	Or	Ir	Ig
25	26	27	28	29	30	1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29

Abuztua

Al	Ar	Az	Og	Or	Ir	Ig
30	31	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Iraila

Al	Ar	Az	Og	Or	Ir	Ig
27	28	29	30	31	1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Urria

Al	Ar	Az	Og	Or	Ir	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Azaroa

Al	Ar	Az	Og	Or	Ir	Ig
29	30	31	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

Abendua

Al	Ar	Az	Og	Or	Ir	Ig
26	27	28	29	30	1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30